

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a / 698. zenbakia

GABONETAKO MARRAZKI LEHIAKETA

Txatxilipurdik antolatutako
lehiaketan hainbat ume
eta gaztetxok esku hartu dute

ORAIN ETA HEMEN: SENTENTZIAREN ZAIN/9 • KULTURA: BERTSO JAIALDIA /18

ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN

SANTAMASAK 2004/31-39

Arrasateko
udalbatzak
Santamas jai
zorientsuak opa
dizkizue
arrasatear guztioi

Zuen zerbitzura



Arrasateko Udala

KALEINKESTA/ Zeiñek organizau biherko leuke Santamasak?



JOE SANTIAGO
Langillie



HELEN COOPER
Langillie



SINEAD FALLON
Langillie



JUAN ERRETOLATZA
Langillie



JULIO MAURI
Langillie



CELI GONZALO
Erretiraue

Udalak beti gure dau bere kondiziñuek jarri. Danen artien konpondu eta jaixe organizau biherko leukie: herritarrek, Komisiñuek eta Udalak. Baiñe ez nau gai horretan oso jantzitze.

Oin arte organizau dauenek jarraitu biherko leukie. Tradiziñuei jarraiketie komeni da. Batek edo bestiek organizau, herritarrek gure dauena egin biherko leukie.

Komisiñuek organizau biherko leuke. Oin arte ondojuen bada, ez da komeni aldaketie. Gabonetan neure herrire juen arren, Santamasak pasau arte hamen egoten naz.

Lehen Komisiñuek antolaketan zittuen jaixek, eta Udalakin batera berorrek jarraitu biherko leuke. Lehendik datorren gauza bat da, eta normalena da lehengo moduen egittie.

Jaixek kultura taldiek eta kuadrillek organizau biherko leukie. Eta Udalak dirue jarri biherko leuke jaixek egitteko. Ez dot pentsetan Udalak arrazoirik daukonik.

Hasiera baten behintzet Udalak organizau biherko leuke jaixek. Eta herriko kultura taldiek esku hartzie bidezkuena da, eta danok ados jarri biherko die.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK TXIKIENENDAKO IGERIKETA IKASTAROAK Herritar batek aditzera eman digu Musakolako kiroldegian ume txikiendako igeriketa ikastarorik ez dagoela. Horregatik, Arrasateko 20 ume Oñatira joaten dira horretara. Herritar horren esanetan, horren premia handia dago, eta dagokionari galdetu gura dio ea zergatik ez duten Arrasaten zerbitzu hori ematen.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

Bixente Barandiaran

Errementaritzak eman duen azken maisuetako bat hil egin da. Ondare handia utzi digu Barandiaranek.

KIROLA /12

AGR, Urnietaren kontra

AGR Arrasatek Urnietaren kontra jokatu du domeka goizean, 11:30ean, Iturripen.

KULTURA /19

Musika Eskolako Banda

Arrasateko Musika Eskolako Bandak 10 urte bete ditu, eta hainbat ekitaldi egingo ditu.

ASTEKODATUA

5

ORDU EGIN ZITUZTEN HIP-HOP JAIKO GRAFITIA EGITEKO

Joan den zapatuan egin zuten hip-hop jaiaren ekitaldien barruan, hainbat lagunek grafiti erraldoia egin zuten gaztetxearen kanpoaldean. Horretarako, bost ordu behar izan zituzten.

BESTEKEESANA

“ Prest nago bisitarik gustuko ez duenari nire eskuin eskuko erdiko hatza erakusteko. Ustel dadila nire soldaduei hemen azkeneko desfileetan zutenen herritarrek eskaini zieten agur izoztua. Gonbidatu nautenek Polo Garaia lehen harria jartzeko eskatu didate. Gizagaioek ez dute fede txarrez egin, zin dagit. Gamelu konkordun baten gainean etorriko banintz bezala hartu naute, Gabonetako desfileetan erregeek gozokiak noiz jaurtiko zain egon ohi diren ume horiek moduan. Ilusioa egiten die. (...) Felipe V.aren leinuko erresumak meza bat ez, kooperatiba bat ere merezi du, ontzi ikuzgailuak egiteko lantegia inauguratzeko aitzakiarekin bada ere... **Jainkoagatik, Aberriagatik, Erregeagatik... maite dut kooperatibismo kooperantea**”.

AMAGOIA IBAN
‘BERRIA’/04-12-09

ALKATEARENAGURRA/ INAZIO LAKUNTZA



Arrasatearrok!

Harrigarria da denbora nola pasatzen den; dagoeneko Santamasetan gaude eta laster datozkigu Olentzero eta urte berria.

Aurtengo Santamasetan, denon laguntzarekin, ahalegin guztiak egingo ditugu urteko azokarik garrantzitsuena gure sustrai eta kultura-adierazpenen agerpenik osoena izan dadin.

Eta nahiko modu kontsumistan bada ere, eguberriak ahal dela gure produktuekin ospatzera animatu nahi zaituztegu.

Bestalde, familiartean jai zoriontsuak igaro ditzazuela opa dizuegu eta, gure mendietara elurra etortzen bada, ea ideiak argitzen dizkigun eta urte berrirako indarberritzen gaituen.

Gogoan daukagu denak ez daudela gure artean, baina edonola ere, onena opa dizuegu arrasatear guztioi.

Santamas zoriontsuak.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Arantzazu Arana

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 17**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 18**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 19**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 20**
Irizar, Ercuín 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 21**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 22**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUENA, 23**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 24**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delai. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelohenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelohenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRIAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
10:00 (elebiduna)	
12:30 meza nagusia (elebiduna)	San Isidro eliza
19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 (euskaraz)
Uribarri parrokia	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz)	
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

BIHAR, KULTURA TALDEEK ANTOLATUTAKO EGITARUA

Hainbat kultura taldek jai egitarua antolatu dute biharko, zapatua. 11:30ean diana joko dute. 12:00etan Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeek kalejira egingo dute. Eguerdian txistorra eta sagardoa banatuko dute Herriko Plazan. Horrez gain, erraldoi eta kilikiekin ibiltzeko aukera egongo da. 14:00etan Txerri Dantza egingo dute Herriko Plazan. 18:00etan koadrila arteko herri kirolak eta bertsolariak izango dira. 19:30ean dantza ikuskizuna.

EGUAZTENEAN, UDALAK ANTOLATUTAKO EGITARUA

10:00etan, hainbat azoka: Seber Altuben, fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketa; Garibai etorbidean, ganadua; Laubide plazan, hegaztiak; Jokin Zaitegi plazan, artisauak; eta osoko bilkuren aretoan, gazta, ezti eta pintxo lehiaketak. 11:30ean, kalejira hainbat talderekin; eta Meatzetako harri-zulataileen erakustaldia Zaldibarko pilotalekuan. 12:00etan, pintxo salmenta Herriko Plazan. 12:30ean, herri kirolak Zaldibar pilotalekuan, eta 18:00etan profesionalen pilota partidua Uarkapen.

AEDren AGENDA

EGUAZTENEAN, BERTSO JAIALDIA AMAIA ANTZOKIAN
AEDk honako bertsolariak ekarriko ditu Amaia: Labayen, Alustiza, Lizaso, Agirre, Peñagarikano eta Bartra. 20:00etan izango da.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Ercuín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Ercuín A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Ercuín B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Ercuín A eta Gorostiza.

ORAIN DELA 10 URTEARRASATEN

80 urte, organoak eta organo jotzaileak

Orain dela 10 urte, 80 urte bete zituzten San Juan Bataiatzailearen elizako organoak eta baita azken urteotan organoak jotzen ibilitako David Artzamendik ere. 62 urteotan organoa jotzen egingo dako lanagatik omenaldia egin zioten Artzamendiri, eta hainbat musikaririk esku hartu zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elepuru

“Goratu”

Laudatu.
—Periodikuak Arkonada zeruraino goratu dau.



JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Supercools eta Ostiada Oi!

Asteburu honetako Danbaca saioan, hardcore klasiko eta punk-oi! doinuak nagusituko dira 107.7an. Zapatuan, Bergarako Supercools taldearen txanda izango da. Talde gaztea baina era berean ibilbide emankorra duena. Kontzertu indartsua eskainiko digu. Domekan, berriz, Elgeta, Bergara eta Arrasateko partaideak dituen Ostiada Oi! taldearen esku-tik, abesti gogoraerazekin osatutako kantu bilduma izango dugu entzungai. Zapatuan, 16:00etan, eta domekan, 16:00etan.



Dei baten truke oparia eskura dezakezu

Datorren astean oporrak hartuko ditugu Arrasate Irratian. Baina atsedean hartu aurretik, Olenzerok gurean utzitako opariak banatu gura ditugu egunero irratia-aren beste aldean izaten zareten artean. Horregatik, bada, deitu 943 71 17 31 telefonora eta Igo Autobusera!

Bestalde, eguaztenean Santamas eguna ospatzen dugula-eta, irratiko mikrofonoak kalera aterako ditugu, zuek ere kalean gertatzen denaren lekuko zuzena izan zaitezten.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratua: Silvi Schiettekate, Quebeco gabonen gainean; Larraitz Iparragirre...
- 16:00 Danbaca: Supercools.
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratua.
- 16:00 Danbaca: Ostiada Oi!
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
11:05 Musika
12:05 Arrasate Irratiko albistegia.
12:20 Zorion agurren tartea.
12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
* Asteazkenean Santamas eguna dela-eta, saio berezia goizeko 10:30etatik 13:00era.
- ABENDUAK 27- URTARRILAREN 9**
10:00 Urteko elkarrizketak.
16:00 Danbaca kontzertuak.
- URTARRILAREN 9**
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!

ASTEABIHITZETAN

Erregea MCCn, eta protestak kalean

Garaia Berrikuntza Guneko lehenengo harria jartzera eta Fagor Garagartzako ontzi-garbigailuen gune berria inauguratzera etorri ziren Espainiako errege-erreginak gurera. Eginkizun esanguratsu horretan, Ibarretxe lehendakaria, Juan Inazio Garate Garaiaiko presidentea eta Jesus Catania MCCko presidentea izan zituzten lagun.

Kalean, berriz, errege-erreginen etorrera zela-eta protesta ekitaldiak izan ziren. LABek deituta, enpresa batzuetan bi orduko lanuztea egin zuten. Horrez gain, herritarrek kale agerraldi jendetsuak egin zituzten.

Hamabi urteko kartzela zigor eskaera

Auzitegi Nazionalak abian duen 18/98 sumarioa dela-eta Debagoieneko hainbat lagun daude auzipetuta, tartean Natale Landa abokatu arrasatearra. Sumario hori hiru ataletan dago banatuta: *Egin* egunkariak eta haren inguruko enpresek osatzen dute lehen atala, Ekin-ek eta Joxemi Zumalabe Fundazioak osatzen dute bigarrena eta Xakik hirugarrena. 62 lagun daude sumario horretan inputatuta, eta, Auzitegi Nazionalak adierazi duenez, udaberrian epaituko dituzte guztiak.

Natale Landari dagokionez, Auzitegi Nazionalako fiskalak 12 urteko espetxe zigorra eskatzen du.

Espetxeetako pastorala lanean

Aurten ere preso dauden lagunendako laguntza batzen hasi da Leintz bailarako espetxeetako pastorala. Aurten, preso dauden etorkinei laguntzeko bideratu dute laguntza kanpaina, pastoraletan esanetan eurak dira-eta behar handien daukatenak. Bakardadeari aurre egiteko, besteak beste, euren senitartekoekin berba egin ahal izateko telefono txartelak eman gura dizkiete.



Erakusketa eta koadro salmenta solidarioa

Arrasateko artea munduari lagunduz lelopean, Harreman gobernuz kanpoko erakundeak margo erakusketa eta salmenta antolatuta du Monterronen. Erakusketa hilaren 24ra arte egongo da irekita. Arrasateko eta orohar ibarreko artistek emandako artelanekin osatu dute erakusketa. Dirua San Clemente proiektuarendako izango da.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Nahaspila asko

Erregeak inoiz baino lehenago etorri dira aurten herrira, eta izan ere Olentzero zale asko daude Arrasaten. Horrez gain, aurten Santamasak lehenago ospatuko dituzte batzuek. Udalaren, Komisiñuaren eta hainbat kultura talderen arteko desadostasunen ondorioz Santamas inguruan bi jai egun egongo dira: batetik, eguaztena,

Udalak antolatutako egitarauarekin; eta bestetik, bihar, hainbat kultura taldek antolatutako egitarauarekin.

Urtea arrapaladan doala diote batzuek eta ez da gutxirako. Azken aldian gertaera nabarmen asko jazo dira gure artean, eta badirudi abenduak abiadura handia hartu duela. Horien artean, egia esanda, gauza onik ez,

edo gauza on gutxi. Izan ere, eztabaida, nahaspila eta kezu handia dago, eta kasu gutxietan ikusten da konponbidea.

Erregearen etorrerak herrian eta kooperatiban eztabaida eta egoneza piztu du, Udalatxan egin gura duten proiektuak oraindik bazter asko astinduko ditu, eta jaien gainean etorkizuneko adostasuna aurkitzea ezinbestekoa da. Ea datorren urtea lasaiago hasten den, asko eskatzea ez bada.

ASTEKOIRUDIA



GOIATZARANA

UDALATX BABESTEKO PLATAFORMA ERATU DUTE.

Astelehenean Udalatxan aldeko plataformak batzara egin zuen Monterronen. Orain dela gutxi, Urkulu proiektuaren aurkako plataformako lagunek dei egin zuten Udalatxan egin gura duten proiektuaren aurka taldea osatzeko. Herriko hainbat talde eragiletako ordezkariak eta bestelako herritarrak gonbidatu zituzten. Honako hauek egin dute bat: Ekologistak Martxan, AHT Gelditu Elkarlana, Ahots Kooperatibista, AGAKO, Ezker Batua, Espeleologia Taldea, ESK, Zutik, CCOO, LAB, Herri Anitza, Aralar eta Besaidek. Urtarrilaren 12an elkartuko dira, Monterronen, 18:30ean. /I.B.

rrak gonbidatu zituzten. Honako hauek egin dute bat: Ekologistak Martxan, AHT Gelditu Elkarlana, Ahots Kooperatibista, AGAKO, Ezker Batua, Espeleologia Taldea, ESK, Zutik, CCOO, LAB, Herri Anitza, Aralar eta Besaidek. Urtarrilaren 12an elkartuko dira, Monterronen, 18:30ean. /I.B.



Udalatx
Inmobiliaria

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.
ARRASATE

www.udalatx.com
udalatx@udalatx.com

OINETAKOAK ETA POLTSAK

Year

ARRASATE
Biteri Etorbidea 13
Tel.: 943 79 21 71

BERGARA
Barrenkale 9
Tel.: 943 76 22 86

LOOKY
KOLLFLEX
MACARÓ
WONDERS
HISPANITAS
PATRICIA
PIELSA
ORIGINAL
CLARKS
24 HRS.
YANKO
N.O.D.
ESCALENIO
CATS
LODY
SACHA LONDON



JAIK/ Hainbat negoziazio bileraren ostean, Udalak, Komisiñuek eta kultura taldeek ez dute lortu jaiak elkarrekin antolatzeko hitzarmenik.

Taldeekin akordiorik lortu barik, aurten ere Udalak bakarrik antolatuko ditu jaiak

JON BEREZIBAR

Hainbat bilera egin ostean, Udalak, Komisiñuek eta kultura taldeek ez dute Santamasak antolatzeko hitzarmenik lortu. Komisiñuek eta taldeek jai eredu herrikoia eskatzen dute eta Udalak, berriz, antolaketa-ko ardurak berriro ere bantzea gura du.

Aurten ere ezin izan dira Udala eta Santamas Komisiñue, herriko kultura taldeekin batera, jaiak elkarrekin antolatzeko akordio batera heldu. Iaz gertatutakoak ikusita eta irtenbide bat bilatzeko asmoarekin, hainbat bilera egin dituzte alderdi guztiek azken bi hilabeteetan. Azkenean, negoziatioak eten eta Udalak bere alde-tik antolatu ditu aurten jaiak. Egoera ikusita, zenbait kultur taldeek ere jai parte-hartzailea egitera deitu dute biharko, antolatzaileren hitzetan, "Kultura batzordeburuak ez duelako taldeen iritzia aintzat hartu".

Iaztik dator Santamasen antolaketa dela-eta Udala, Komisiñue eta kultura taldeen arteko ikamika. Joan den urtean Komisiñuek bertan behera utzi zuen jaien antolaketa, azken 30 urteotan gertatu ez dena. Orduan, Udalak hartu zuen bere gain antolaketa guztia. Aurten egoera hori ekiditeko hitzarmen proposamena aurkeztu zion Komisiñuek Udalari opor aurretik, negoziatioak berpizteko asmoarekin.

HITZARMEN PROPOSAMEN BERRIA

Udalak testua irailean irakurri zuen, eta, Kultura zinegotzi Ines Aldaik azaldu zigunez, "aurreko urtekoaren bera zen, eta desadostasun berberak zeuden". Horren aurrean Udalak bere proposamena aurkeztu zuen "jaien gaineko hausnarketa bideratzeko, inolako aldaketarik aurreikusirik barik." Udalak ardurak ea beste modu batera bana zitezkeen aztertu gura zuen orduan, eta zinegotziaren esanetan "oso txarto hartu zuten gure jarrera". Aipatutako proposamen hori herriko kultura taldeen ekarpenekin idatzi zuen Komisiñuek, eztabaidarako oinarri moduan balio zezan.

Urrian hasi ziren lehen bilera, eta bilera horietan parte hartu zuen kultur taldeetako ordezkari batek azaldukoaren arabera, "Udalak ez zuen hitzarmena irakurri ere egin eta nagusiki esku-orria nork sinatuko zuen eztabaidatu gura zuen bakarrik". Ines Aldaik esan digunez, euren asmoa "agurra elkarrekin idaztea zen baina Komisiñuek ez zigun utzi berarekin batera idazten". Modu berean, lehen bilera hartan "oso garbi gertatu ziren alderdi bien jarrera kontrajarriak", aipatutako ordezkariak esan digunez.



Santamas Komisiñuek eta hainbat kultura taldek egin zuten prentsaurrekoa martitzenean.

*"Jaiak
instituzionalizatu
gura izateak
eredu herrikoia
kaltea dakar"*

Hala ere, Kultura zinegotziak onartu egiten du oso jarrera itxia izan zutela lehen bilera hartan,

*Kultura Saileko
zinegotziak onartu
egin du hasiera
baten jarrera itxia
izan zutela*

baina ondorengoetan "hitz egiteko askoz ere gertuago" agertu zirela gehituta. Azaroaren 8an

*Udalak ez du
ulertzen Udalaren
partaidetza barik jai
herrikoia egin
gura izatea*

egin zen bilera hori, kultura taldeek euren benetako kezka azaldu, "jaien instituzionalizazioak

Kultura taldeen egitaraua

Ika-mikarekin jaien eredu parte-hartzailea kolokan dagoela ikusita, eredu herrikoia aldeko jaieguna antolatu dute herriko kultura talde batzuek. Antolatzaileren ustetan, "tira-bira horiek jaiak instituzionalizatu gura izanak eragin du" eta, horrek ekar ditzakeen ondorioetatik kezkatuta, hori "modu positibo baten" adierazteko jaieguna deitu dute. Halaber, "Udalarekin akordio batera iristeko beharra" ikusten dute, "jaien bizi iraupena bermatze aldera".

Egun osorako festa antolatu dute hainbat taldek. 11:30ean kalejira egingo dute Lore Gazteak eta Arrostaiz taldeek, eta Komisiñuek txerria zozkatuko du. Txartelak doan izango dira. Eguerdian, Kiliki eta Erraldioen Konpartsak erakustaldia egingo du eta gura duenak erraldoiekin ibiltzeko aukera izango du. Herriko dantzariak giroa berotzen ibiliko dira eta Komisiñuek txistorra eta sagardoa banatuko du doan. 14:00etan Txerri Dantza egingo dute dantzariak. 18:00etan koadrilen arteko herri kirol probak egingo dituzte; 19:30ean Txerri Dantza egingo dute eta txistorra eta sagardoa banatuko da. Kale animazioa eta giroa bermatu gura dituzte egun osoan.

Antolatzailerek garbi utzi dute jai hori ez dela boikot edo egitarau alternatibo bat. Jai parte-hartzailea egin gura dute, eta ez dute erakunde publikoen esku hartzea gaitzetsi. Eredu hori gizarteke beste alor batzuetarako hedatzeko esperantza ere badute horren antolatzailerek.

Batzordeburuaren gogoeta

Udaleko Euskara eta Kultura Sustapenerako batzordeburu Ines Aldaik idatzi bat igorri digu Udalaren, Komisiñuen eta kultura taldeen arteko ika-mikak direla-eta. Aldairen esanetan, "eguberrien atariko egunek esanahi berezia dute eta egun horiek jokabide adiskidetsua merezi dute, laguntasunak gailendu behar du".

Santamas Komisiñuek eta Udalak adostasunik ez dute lortu, eta horregatik, besteak beste, Komisiñuek ez du Olentzero antolatuko. Horren aurrean, Aldaik, "gure arteko talderik sentikorrenari baikortasuna eta esperantza helarazten dion Olentzero bezalako jaiak gutako bakoitzari barruan daukagun onena atera beharko liguke". Horregatik, Kultura batzordeburuak zera ondorioztatu du: "Eguberrietan hain gurea den Olentzero bere musika eta kantuekin aterako ez balitz, zaila izango litzateke ulertzea zergatik ez den atera. Ez dut ulertzen zelan jai herrikoia gehiago lotzen diren bultzatu, sustatu edo antolatzen dituenarekin, eskaini nahi duenarekin baino". Eta honako galdera bota du, hain zuzen ere: "Jai herrikoiek osatzen duten ondarea talde edo instituzio berezi batena al da?".

Bukatzeko, Udalak urtean kulturaren alde egiten duen lana goraiatu du, eta honako hausnarketa zabaldu du: "Zein da kultura taldeen eginkizuna? Beraien gaia den kulturaz arduratzea, sortu eta hedatzea? Herriarentzat esanguratsuenak diren uneetan kultura eskaintzea al da haien betebeharra?"

IKER BARANDIARAN

EPAITEGIAN/ Ustezko terrorismo delituarengatik epaiketa

Sententziaren zain, ustezko terrorismo delitua dela-eta

U.M.

Ustezko terrorismo delituarengatik izandako epaiketan, epaileak erabaki zuen Saioa Altzua kargu barik uztea. Berriz, Gaizka Azkarate eta Lur Pagoagaren gainean, datorren astean-edo jakinaraziko du erabakia. Epaiketan izandako bi aldeak ez daude batere gustura.

Audientzia Nazonaleko fiskalak 17 hilabeteko kartzela zigorra eta 12.000 euroko isuna eskatu zuen Saioa Altzua, Gaizka Azkarate eta Lur Pagoagarendako. Ustez, PSE-EEko zinegotzi Matilde Martini egindako mehatxuak zirela-eta, moralari kalte egiteaz zeuden akusatuta hiru gazteak.

Epaiketa hilaren 3an izan zen, Madrilen. Akusatuek sei lekuko eramán zituzten, defentsarako: gertakariak izan zirenean udalbatzarreko zinegotzi ziren Jose Mari Urizar Ametzu (EA), Amaia Larrañaga (EA), Xabier Zubizarreta (EH) eta Joseba Ugalde (EB). Beste bi lekukoak Eroskin erosten zeuden bi pertsona izan ziren. Bere aldetik, akusazio partikular moduan Matilde Martin zinegotzia bera eta haren bizkartzaina izan ziren.

Guztien deklarazioak entzun ostean, aretoan zeuden hiru epaileek erabaki zuten Saioa Altzua kargu barik uztea. Beste bi akusatuen gaineko erabakia, berriz, datorren astean-edo jakinaraziko dutela iragarri zuten.

MATILDE MARTINEN IRITZIA

Edozelan ere, epaiketako bi aldeak ez daude gertatutakoarekin konforme. Matilde Martin zinegotziak zera adierazi digu: "Sines-tezina da han esan zituzten gezur-rak. Batez ere, guztiek dakitenean zein den gure egoera: mehatxatuta gaudela eta bizkartzainak ditugula. Baina, EAko, EBko eta EHko zinegotzi izanda-koek ez zuten hori onartu, egoera horren berri ez zekitela esan zio-ten epaileari". Gauzak horrela, dagoeneko epailearen erabakia errekurritzea erabaki du zinego-tzi sozialistak: "Aktak irakurriko ditugu eta errekurritu egingo dugu; beti egia esanda". Saioa

Altzuaeren absuluzioaren gainean adierazi digu hari ez ziola irainik eta mehatxurik entzun, beraz, ez duela zeresanik epailearen sententziaren gainean. Baina, beste bien kasuan, haien kontra esandakoa berretsi egiten duela. Gaineratu digu herri guztiak dakiela zinegotzi sozialistak zela bizi diren; baita ere politikan jarduten duen jendearengandik zintzotasun handi-agoa espero zuela.

LUR PAGOAGAREN IRITZIA

Bere aldetik, Lur Pagoagak zera adierazi digu: "Epai-keta fartsa hutsa izan zen. Guztia zegoen erabakita alde aurretik". Lur Pagoagaren deklarazioak entzuteko orduan, epaileek arre-ta falta izugarria erakutsi zuten. Gaineratu digu zinegotziak eta haren bizkartzainak esan zituztela gezur-rak: "Guk eramandako frogetan (argazkietan-eta) Matildek eta bizkartzainak ez gintuzten identifi-katu". Zinegotziak egindako sala-keta guztiak ukatu egin ditu Lur Pagoagak. Eta lekuko moduan eramandako zinegotzietan gauza bera egin zutela adierazi digu. Osoko bilkuren aretoan egindako ustezko mehatxuen gainean adierazi digu presoen aldeko eta tortura-ren kontrako oihuak izan zirela eta lekukoek hala baieztatu zutela.

AUTOBUSA ARRASATETIK

Bestalde, esan beharra dago 35 bat lagun joan zirela Arrasatetik epai-ketara, Lur Pagoaga, Saioa Altzua eta Gaizka Azkarate laguntzera.

Matilde Martinek dio egia esan zuela eta egia erakusteko errekurritu egingo dutela

Lur Pagoagak ukatu egin ditu salaketak eta eramandako lekukoek gauza bera egin zuten



Arrasateko euskalgintza

Arrasaterako Plan Estrategikoaren ekuatorean

U.M.

Urtea bukatzeaz dagoenean, urteko ohiko bigarren batzar orokorra egin zuten atzo euskalgintzako taldeek. Aurtengo jardunaldiaren balorazioa eta datorren urterako lanerako ildo nagusiak zehaztu zituzten, besteak beste.

Atzoko batzarrean elkartu ziren erakunde bakoitzak urteko jardunaren balorazioa egin zuten; hala, orain iritzi horiek guztiak batu eta balorazio orokorra egingo du euskalgintzak. Horren harira, besteak beste, adierazi beharra dago aurtengo urtea berezia izan dela euskalgintzarendako, plan estrat-egikoaren ekuatorera iritsi dire-lako. Horrenbestez, lane-rako beste bi urte dituzte orain.

2005-2006ko lehentasunak zeintzuk izango diren zehaztu zituzten; baita ere lehentasun horiek lortzeko 2005ean egin beharreko ekintzak. Horrez gainera, komunikazio taldeak euskararen komunikazio plana aurkeztu zuten, eta jarraipen batzordeko kide berriak ere aukeratu zituzten.

Edozelan ere, albiste hau idaztean batzarra bukatu barik zegoenez, ezin dugu hartutako erabakien berririk eman.

Badakitzu edozein dendatan edo komertzioan **euskeraz** eitteko eskubidie daukatzule?

Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!

ALDARRIKATU ETA SALATU


www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN **BEHATOKIA** FUSKARAREN TELEFONOA 902 194 332



J. Carlos Gerra 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06






CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak



EKIDE S.L

San Andres auzoa 2. 4A pab.

20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 43

Faxa: 943 71 21 43

e-mail: ekide@sarenet.es

*Santamasetan eta
Gabonetan ondo
ibili!*


UGARTE

AROTZEGIA - ALTZARIAK



ALTZARI DENDA
Ikerleku zaharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

- Arotz lanak orokorrean
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan, 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

GIZARTEA/ BIXENTE BARANDIARAN HIL DA

Errementaritzak azken maisuetako bat galdu du

URBANE MADERA

Badira zenbait ofizio desagertu direnak edo desagertzear daudenak, bizitzaren aurrerapenaren eraginez. Horietako bat da errementaritzak. Gutxi dira ofizio horretan jarduten dutenak, are gutxiago orain, Bixente Barandiaran hil dela.

Martitzenean, hilak 7, joan zitzaizgun Bixente Barandiaran errementaria. Bizitza guztia eman zuen errementaritzan, Zarugaldeko Tomas Otaduiren errementerian lanbidea ikasten hasi zenetik, 18 urterekin: "Esaiok goizean 07:00etan hasten garela lanean eta armosua emango diodala eta ofizioa erakutsiko diodala eta gainera 13 erreal pagatuko diodala egunean. Halaxe hasi ninduan".

Harrezkero, errementaritzak izan zuen ofizio Bixente Barandiaranek. Zarugaldeko sutegietan jardun zuen gerrara joan zen arte; haren ostean, Ugarte y Cian lortu zuen lanpostua, baina, era berean, errementaria zabaldu zuen etxepan, Markoaldeko Markoetxebarri baserrian. 1956an izan zen hori eta lanbide bietan jardun zuen gizonak, erretiroa iritsi zitzaion arte. Baina erretiroa bakarrik fabrikari hartu zuen; ez errementaritzan. Halako ofizioak, betirako izaten direla diote adituek eta Bixentek eutsi egin zion ohitura-ri, duela oso urte gutxira arte.

Izan ere, eskuzabala eta langilea izaki, Markoetxebarriko lan-



Bixente Barandiaran, Erakusketa Industrialean ipinitako lantegian.

tegia Zerrajerako egoitza nagusira eraman zuen Udalak eskatu zionean. Han izan da orain dela gutxira arte, Erakusketa Industrialean, edozeinek ikusteko moduan; Bixentek berak hitzaldiak ere egin izan ditu. Edozelan ere, Saiolanen egin behar dituzten lanen ondorioz, guztia desmuntatu eta gordeta dago, harik eta Museo Industrialak egiten duten

arte. Horren ostean, Museoan izango dira oroimenerako gordeta Bixente Barandiaranek erabilitako lanabesak: hauspoa, mailuak, ingudeak... berak nahi zuen moduan, ahantz ez dagigun.

FAMILIAREN ESKER ONA

Bestalde, Bixente Barandiaranen familiak eskerrak eman gura dizkie haren lagun eta ezagun guztiei.

Radio-taxi zerbitzua abiarazi gura dute Debagoienean

U.M.

Gipuzkoako taxien AGITAX elkarteak datorren urterako prezioak aurkeztu dizkio Udalari. Baita radio-taxi zerbitzua abiarazteko aurreneko pausoa ere. Erabakia osoko bilkurak hartu beharko du.

2005eko tarifei dagokienez, Arrasateko prezioak igoko dira gehien ibarrean: %6,8. Iaz ez zuten igorarik ezarri eta horregatik garestituko dira gehiago Arrasateko taxien tarifak. Gainerako herrietan %6 igoko dira prezioak. Hala, honako prezioak proposatu dizkiote Udalari: egunez, bandera jaistea 2,67 euro; kilometroko 0,83

euro eta itxaroten egondako orduko 16,006 euro. Eta gauez: bandera jaistea 2,67 euro; kilometroko 1,33 euro eta itxaroten egondako orduko 25,12 euro. Prezio horiek onartuz gero, ibarreko taxi guztiek berdin kobratuko dute.

RADIO-TAXI SORTZEKO ASMOA

Izan ere, zerbitzu berria sortu gura dute Gipuzkoan: Donostiako radio-taxiaren antzerakoa. Gure kasuan, Debagoieneko taxilariak elkartu eta zerbitzu bakarra eman gura dute: ibarreko edozein taxilari hartu ahal izatea edozein herritako bezeroak. Esaterako, Arrasaten ez bada taxilariarik, ibarreko edozein herritatik etorri ahal izango da bat, prezio berarengatik.

Uraren eta zaborraren gaineko zergak direla-eta

U.M.


Zergak direla-eta, Udalak jakinarazi digu abenduaren hasieratik urtarilaren erdialderaino ur-kontadoreen irakurketak jasoko dituztela. Irakurketa egitea komeni da, zerga kobratzeko modua aldatu da-eta.

Kontua zera da: irakurketarik ez bada egiten, gutxieneko finko bat kobratuko dutela eta hurrengo hiru hilabeteetan, berriz, dagokion gutxieneko finkoa gehi egindako


irakurketaren arteko kontsumodesberdintasuna kobratuko dute. Hau da, ez dute deskontatuko irakurri bako hiru hilabetearen arteko ordaindutako gutxienekoa. Beraz, irakurketa egitera doazenean etxean egon ezean, norberak egin dezake irakurketa. Gero, bi bide dauka irakurketako datuak emateko: horretarako utzitako papera bete eta Udalera eraman, edo Udalera deitu eta esan: 943 77 09 00.

Bestalde, esan beharra dago zaborraren gaineko zerga hiru hilabete behin barik, sei hilabete behin kobratzen hasiko direla.

JOXAN



bitxitegia eta erloju denda



“Erloju on bat edonorren eskuetan egon daiteke”

Portaloia 8 • Tel.: 943 79 22 24
ARRASATE



OLAIA MONDRAGON

Enrike Kabiketaren oroimenez egingo dute lasterkariak korrika.

ATLETISMOA

Ikusi egin behar zein koadrilak eramaten duen domekan bildotsa

Santamasetako Koadrilen Arteko Krosa 12:30ean hasiko da, Seber Altuben

XABIER URTZELAI

Domekan jokatu dute herriko lasterketa herrikoiena, Santamasetakoa. Aurten hogeita zazpi urte egingo ditu Arrasate Atletiko Taldeak antolatzen duen lasterketak. 12:30ean hasiko da koadrilen arteko lasterketa, baina lehenago ere egingo da zer ikusi.

Izan ere, goizeko hamaiketan hasita, gaztetxoek korrika egiteko daukaten abilezia erakutsiko dute. 11:00etan hamahiru eta hamalau urte bitarteko gazteek 800 metroko lasterketa egingo dute. 11:15ean hamaika eta hamaibi urtekoen txanda izango da, eta

horiek 600 metroko distantzia egin beharko dute. 11:30ean korrituko dute hamar urtekoek (400 metro); 11:40an bederatzita urtekoek (400 metro); 11:50ean zortzi urtekoek (175 metro) eta 12:00etan zazpi urtekoek (175 metro).

SEI KILOMETROKO LASTERKETA

Koadrilen arteko lasterketari dagokionez, ez da aldaketa handirik izango. Arrasate Atletiko Taldeko Fernando Zufiriak eman digu ibilbidearen berri: "Lasterketa Seber Altuben hasiko da, eta handik Maala gurutzatu eta Olartetik Muxibarreraino joango dira. Muxibarko biribilean buelta erdi eman eta Arbolapetatik Seber Altubera itzuliko dira. Ibilbide

horri hiru itzuli eman eta gero, azkeneko itzulian, lasterkariak Seber Altubetik Herriko Plazarako bidea hartuko dute, hantxe egongo da-eta helmuga".

BILDOTSA ESKURATZEKO LEHIAN

Koadrilen helburua izango da lehenengo postuko saria eskuratzeko: bildotsa. Joan den urtean Los Caracoles taldearendako izan zen bildotsa, eta lehia polita izan zen Cesar Perezen eta Zuhaitz Ezpeletaren artean. Ikusi egin behar aurten nola dabiltzan herriko kirolari ezagunak, eta ikusi egin behar Arrasateko Atletismoko Taldeko gazteek zein maila erakusten duten. Argi ibili, 20 minutuko lasterketa izaten da-eta.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Tomahawk	4-2
Saukelu Scream - Torpedo Musakola	6-1
Fuxion - You Know!	1-5
Iriztu - Goma2	6-2
AC Surcos - Billy & The cowboys	5-4
Lasagabaster - Irati	3-3
La Kuadrilla - HLB 108	6-0
Ekipo Aldeano - Betraye	5-11
Dribling - Manhattan Pippol	5-4

PARTIDUAK

ABENDUAK 18, ZAPATUA. EPAILEAK

10:00: Abokajarro - La Kuadrilla	Goma2
11:00: Goma2 - You Know	Abokajarro
12:00: Irati Taberna - Saukelu	You Know
13:00: Betraye - Iriztu	Saukelu Scream
16:00: Fuxion - HLB 108	Torpedo Mus.
17:00: AT Celaya - Torpedo M.	Fuxion
18:00: Billy & The... - Tomahawk	AT Celaya

ABENDUAK 19, DOMEKA. EPAILEAK

12:00: Dribling - AC Surcos	Lasagabaster
13:00: Ekipo Ald.	Lasagabaster. Dribling

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. You Know!	10	6	
2. AC Surcos	10	6	
3. Irati Taberna	9	6	
4. Betraye	8	5	
5. HLB 108	8	6	
6. Saukelu Scream	8	5	
7. Lasagabaster	8	6	
8. Goma2	8	5	
9. Dribling	7	6	
10. Iriztu	7	5	
11. AT Celaya	5	5	
12. La Kuadrilla	4	6	
13. Abokajarro	4	6	
14. Ekipo Aldeano	3	6	
15. Torpedo Musakola	3	6	
16. Manhattan Pippol	2	6	
17. Tomahawk	2	6	
18. Billy & The Cowboys	2	5	
19. Fuxion	0	6	

AURTENGO AZKEN JARDUNALDIA JOKATUKO DUTE ASTEBURUAN

Ikusi egin behar azken jardunaldi hori joan den astekoa baino lasaitxoagoa den. Horren harira, Irati tabernako jokalaririk batetik bi partiduko zigorra bete beharko du Lasagabasterren kontrako norgehiagoka amaieran izan zuen portaezagatik. Epaila egin behar dutenek, baina, kontuan izan behar dute norgehiagokak behar den moduan epaitu behar direla, eta horretarako gogoia eta balentria behar dira.

FOTOKIROLA



Ez dute boulder txapelketarik egingo

Arrasateko eskalatzailak urtero egin izan dute boulder txapelketa, baina aurten ez dute horrelakorik egingo. Antolatzaile lanetan ibili izan den Mikel Castillok aditzera eman du proba hori bi urtean behin egin gura dutela. /X.U.



Olarte kalea 20
ARRASATE

Ondo pasatu Santamasak
eta urte berri on!

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

1907tik...

Maalako Errabala, 3
20500 ARRASATE
Telf-Faxa:
943 791262

Casa Ceciaga

Lentzeria
Mertzeria
Puntuako osagaiak

Jai zorientsuak opa dizkizugu!



Eraman dotoresuna zure etxera




gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI

Tel.: 943 71 63 22 •

Faxa: 943 78 15 51



Zenbaki
AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es

webgunea: www.zenbaki.es

Gabonak badatoz ere, herriko taldeak ez daude opariak egiteko

XABIER URTZELAI

Herriko kirol talde batzuek urteko azken jardunaldia jokatu dute asteburuan. Beste batzuek, berriz, Gabonetan ez dute ia atsedenik izango. Askotariko helburuak badituzte ere, inor ez dago opariak egiteko moduan. AGR Arrasate da asteburuan etxean jokatu duen talde nagusi bakarra.

Futbolean, Mondrak sailkapenaren erdialdean dagoen Oriokoren kontra jokatu du, kanpoan. Behar dute arrasatearrek aspaldiko partez norgehiagoka bat irabazi, eta behar dute baita ere urtea amaitzeko geratzen diren bi partiduetan itxura ona eman. Joan den astean, Beti Gazteren kontra Mondrak ez zuen ondo jokatu. Olentzerori zerbait eskatzekotan: aurrealdean zorte handiagoa. Norghegiagokak irabazteko gauza direla sinestea eta horretarako motibatuta zelairatzea ere eska diezaiokete; baina eskatzea baino gehiago, norberak jartzea izango da onena.

Saskibaloian, Mugarri Alkesak aurtengo azken partidua jokatu du bihar 20:15ean Zizur Nagusian (Nafarroa). Azkena eta liderraren kontra, Padura izango dute-eta kontrario. Saskibaloiko mutilak ere ez daude ezer opari egiteko moduan. Badirudi, baina, Zurututzaren taldekoek argi daukatela bigarren itzulia lehenengoa baino dezente hobea egin behar dutela, eta hasi dira hori erakusten. Joan den astean Atletico San Sebastian esku



AITOR LIZARRALDE

Jonan Ezkibel min hartuta dago, eta Xabier Altzelai igoko da goiko taldera.

hutsik itzuli zen Donostia aldera (84-79); Arrasatekoek gaizki jokatuzuten, baina norgehiagoka osoan izan ziren aurretik, eta hori seinale ona da. Urtea amaitzeko liderrari bere kantxan irabaztea gehiegitxo eskatzea da, baina eskatzea beti da libre.

ESKUBALOIAN, URNIETAREN KONTRA
AGR Arrasatek Urnietaren kontra jokatu du domekan

11:30ean. Andoni Arando entrenatzaileak eman dizkigu xehetasunak: "Urnietan jokatu genuenean lau goleko aldeagatik irabazi genien, baina ikusi egin behar domekan Iturripen zer egiten dugun. Jonan Ezkibel min hartuta dago, eta igarri egingo dugu hori kantxan. Dena dela, gazte mailako Xabier Altzelai igoko da goiko taldera, eta jokalaria hori gauza da lana ondo egiteko.

FOTOKIROLA



Zarautzen kontrako gatz bako partidua

Joan den astean Santanderri ederto irabazi eta gero (6-3), oraingo asteburuan arrasatearrek ez dute deskantsurik izango. Ez dute, baina, Estatu mailan jokatu; Gipuzkoako Txapelketako partidua jokatu dute Zarautzen (bihar, 15:30ean). Norghegiagoka horrek ez du garrantzi handirik izango, baina partidu berezia izango da, Zarautz lehen mailan kontrario zuzena delako. Joan den asteko garaipenarekin Arrasatek atzean utzi du azkeneko postua, eta zarautzarrak dira orain azkenak.

HERRI PROBAK

Herriko hainbat taldek bihar egingo duten jaiari koadrila arteko herri probak izango dira

Herriko hainbat talde eta elkartek egitarau berezia antolatuta dute eta, horren harira, bihar arratsaldean koadrilen arteko herri probak egingo dituzte. Proba horiek ez dira berritasuna, San Juan jaietan ere egin izan dituzte-eta. 18:00etan hasiko dira proba horiek. Ez dakigu kirol askorik egingo duten, baina argi dago barre egin gura duenak baduela galdu ezin duen hitzordua.



*Oparirako artikuluak
Larruzko artikuluak
Bitxiak*

Kanpatorpea 4, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 12 19



Josle

Mertzeria eta lentzeria



- Arropa eta puntuzko konponketak
- Gortinak eta estoreak egiten dira
- Bordatuak

Santamas jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Otalora Lizenziaduna 21 - ARRASATE
Tel.: 669 100 314



Carrascal, S.L.


BERTAN EGINDAKOAK:



ONDO PASAU SANTAMASAK!



LEGARRE PAB. 1. SOLAIRUA - Tel. eta faxa : 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com




ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

**Berritze lanak
Barruko erreformak
Obra berriak**

**Gabon jai zoriontsuak
opa dizkizuegu**

Tel.: 943 79 67 78 / 639 77 86 90
Zerkaosteta, 17 · 20500 ARRASATE



- Interneterako sarbideak eta zerbitzuak
- VPN sare pribatu birtualak
- Sareen segurtasuna
- Posta elektronikoko segurua
- Domeinuen gestioa eta mantentze-lanak
- Komunikazioetan irtenbide orokorrak

- Telekomunikazioen eta Zerbitzu Telematikoaren Ingeniaritza
- ADSL lineak

Tel.: 902 15 87 17
e-maila: info@conet.es
www.conet.es

Iturriotz kalea 21, ARRASATE



HERRITARRAK ARTISTA BIHURTZEN DIRENEAN... AMAIA UDAL ANTZOKIAN EZ DA LEKURIK LIBRE

Zapatuan eta domekan, bietan bete zen Amaia Udal Antzokia Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren azken lana ikusteko. *El Huesped del Sevillano* zarzuela aukeratu dute bosgarren aldi honetarako, eta, estreinaldiko txalo zaparradak ikusita, ondo asko asmatu dute aukeraketarekin. Ekainean hil zen Juan Artzamendi gogoan, Tere Gonzalezen zuzendaritzapean 60 bat lagun (herritarrak, gehienak) igo ziren eszenatokira eta 35 bat musikaririk jo zituzten zarzuelako piezak. Horiek eta

atzean lan egiten dutenak batuta (ile-apaintzailea, jostuna, jantzien arduraduna...), 100 bat lagunek dihardute *El Huesped del Sevillano* lantzen. Urduritasunak urduritasun, polit askoa izan zen estreinaldia, orain arte egindako bost zarzueletatik onena, zuzendariaren esanetan. Emaizta borobil hori ikusi gura duenak oraindik bi aukera ditu: egubakoitzean, 20:00etan eta zapatuan, 19:30ean. Hori oraingoz. Akaso laster beste edozein lekutan ikusi ahal izango ditugu. Zorionak!

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA
 ITURRIOTZ KALEA 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Ondo pasatu
 Santamas jaiak!



EGUZKIGRAF →
 Inprimategia
 ARETXABAETA
 Industrialdea F-0-4
 Tfnoa: 791844
 Faxa: 792941

ANBOTO

Ondo pasatu Santamasak!
INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz 11 ARRASATE
 Tel.: 943 77 14 11 / 943 77 08 82
 www.inmoarrasate.com



HIP-HOP KULTURAREN IKURRAK ARRASATEKO GAZTETXEAN

Gaztetzaren barruan, hip-hop erritmoa eta rapperrak ozen-ozen. Eta kanpoan, Gipuzkoako eta Iparraldeko grafitiliariak, bost orduz jardun eta jardun, egundoko marrazkia egin arte. Hala, hip-hop kulturaren ikurrek bat egin dute gaztetzean asteburuan, bigarren hip-hop festan. 200 bat lagun erakarri ditu festak, eta ezustean Amenrha Crew Break Dance ikuskizuna bertan behera gelditu zen arren, esan digute bertakoak zein kanpokoak gustura asko murgildu zirela hip-hoparen erritmoan. Ondo gorde erritmoa hirugarren festara arte!



HANDITZEN, HANDITZEN, HASI NAIZ HANDITZEN... ZELA ALDATZEN DIREN GAUZAK ESKOLA GARAITIK


Ez dira laneko lagunak, ezta unibertsitateko ikaskideak ere. Ez. Aspaldi-aspaldi, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean batera ibilitako taldea da. Oraindik noiz edo noiz elkartu egiten dira umetako kontuak gogora ekarri eta oraingoak elkarri esateko. Eta halaxe egin zuten joan den azaroaren 27an. Elkarrekin bazkaldu zuten, OHOkok andereño eta guzti. Hori bai, kontatu digute ikaskide guztiek ezin

izan zutela bazkarira joan, garai batean umeak izandakoak orain umeak ekartzen hasita daude-eta. Gizalegea da hori. Gizalegea da, baita ere, halako bazkarietan-eta, normalean ondo jan eta ondo edanda bukatzea. Seguru ez dakigu, baina ia seguru bai bazkaldu aurretik atera zutela guri utzi diguten argazkia. Bazkalostean ateraz gero, bestelako itxurarekin aterako zirelakoan gaude-eta!

ZABALA oinetakoak

56 urtetan elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun Santamasak

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27



Jai zorientsuak opa dizkizuegu!

ONANDIA

Goxotegia
Dastalekua
Izozkitegia

Iturriotz 11. Tel.: 943 79 12 31

euya

Ondo pasatu
Santamasak

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51 ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



LIRAIN

Gabon hauetan ere zurekin

Saio Erlaxagarria 47€

Hidromasajea
Lokatzak edo presoterapia
Masaje erlaxagarria



Gizonezkoentzat 50€

produktu eksklusiboak emaitza onenak lortzeko:

Bizar mozketa egokia
Azalaren hidratazio eta oreka
Energia osoa azalarentzat



Zorionak eta Urte Berri On!



Bixente Ferrer, 1

20500 ARRASATE

Tel: 943 79 52 17

SARA

MERENDERUE

EUSKAL HERRIAREN ALDE LANEAN ETA SUFRITZEN ARI
DIRENEI LAZTAN HANDI BAT ETA URTEAN ZEHAR GURE
ARTEAN IZAN DIRENEI ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

Tel.: 943 77 15 86 • ARRASATE

AEDk bertso jaialdia egingo du hilaren 22an, Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

Hilaren 22an, Santamas egunean, AEDk bertso jaialdia egingo du Amaia antzokian. 20:00etan izango da eta honako bertsolariek esku hartuko dute: Jokin Labayen, Enaitz Alustiza, Angel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Oihana Bartra eta Joxe Agirrek.

Urtero, jaietan, AEDk bertso jaialdiak antolatzen ditu herrian. Hala egin ohi du San Juanetan eta baita ere Santamasetan. Eta aurten ere hala egingo dute. Eguaztenrako, hilaren 22an, jaialdia antolatuko dute Amaia Udal Antzokian. 20:00etan izango da.

Honako bertsolariek esku hartuko dute: Jokin Labayen arrasatearrak, Enaitz Alustiza bergararrak, Angel Mari Peñagarikano anoetarrek, Sebastian Lizaso eta Joxe Agirre azpeitiarrek eta Oihana Bartra bilbotarrek. Peñagarikano, Lizaso eta Agirre oso ezagunak dira bertsozaleen artean. Oihana Bartra gaztea da, baina gogor dator eta eman du zeresana Bizkaiko txapelketetan. Horiakin batera, seguruena bertsolaritzan etorkizun oparoa izango duten Labayen eta Alustizak ibarreko maila bermatuko dute. Aipatu beharra dago azken bi horiek eta gai jarzaile Lierni Altuna aramaiarra, hirurak hala hirurak, AEDko Bertso Eskolako kide direla.

AEDk bertsolari batzuen beteanotasuna eta beste batzuen gazteria uztartu gura izan ditu, eta ziur bertsolaritza-zaleek asko



Ibarreko bertsolariek punta-puntakoekin esku hartzen dute jaialdian.

gozatuko dutela eguazteneko jaialdian.

BERTSO ESKOLAK, IBARREAN

Arrasateko AEDk, Aretxabale-tako Loramendik eta Eskoriatzako Axtroki euskara elkarteak ekimen berezia jarri zuten abian orain dela hilabete batzuk. Leintz Bertso Eskola eratu gura zuten. Asmoa zen hiru herri horietan gaztetxoendako bertso eskolak sortzea.

Dagoeneko asmo hori bete dute. Orain dela hilabete pasatxo, Eskoriatzan eta Arrasaten hasi

ziren eskolak ematen. Eta joan den astean, Aretxabaletan ere hasi ziren horretan. Ikasleak 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxoak dira.

Nerea Urra arrasatearra da Aretxabale-tako eta Arrasateko eskoletako irakaslea. Eta Eskoriatzako irakaslea Jokin Labayen arrasatearra da. Biak hala biak AEDko Bertso Eskolakoak.

Egubakoitzero elkartzen dira herri bakoitzeko euskara elkartean. Eskoriatzan eta Arrasaten 17:00etatik 18:30era, eta Aretxabaletan 19:00etatik 20:30era, hain zuzen ere.

Juan Luis Baroja Colleten lan grafikoak erakusgai Arregin

I.B.

Joan den egubakoitzean erakusketa inauguratu zuten Arregi galerian. Debako Juan Luis Baroja Collet artista beteranoaren eskulturak eta lan grafikoak urtarrilaren 15era arte egongo dira ikusgai.

Juan Luis Baroja Collet artista beteranoa da. Izan ere, 20 urte baino gehiago darama eskulturak eta lan grafikoak egiten. Are gehiago, beste horrenbeste darama Debako Arte Eskolan grabatu eskolak ematen.

Barojaren esanetan, modernitatea errebindikatu egiten du, eta horretarako aspaldiko teknikak erabiltzen ditu. Grabatu kalkografikoak kobreako planxetan egiten ditu, eta horren ostean, eskuz egindako papere-

an collageak. Emaitza figurazioaren eta abstrakzioaren artean koka daiteke. Izan ere, bere lanek ideiak aditzera ematen dituzte, eta hortaz interpretazio zabalak izan ohi dituzte.

GERTUKOAK ERAGITEN DU

Barojak azaldutakoaren arabera, lanek egileak bizi izandako esperientziekin, inguruarekin eta bizi den lekuarekin lotura handia dute.

Lan grafikoak egiteaz gain, eskulturak ere egiten ditu. Lehenengo aldia da Debagoienan erakusketa egiten duela. Arrasate-ra 35 lan grafiko eta hamar eskultura ekarri ditu. Lan handiak eta txikiak, biak hala biak egiten dituen arren, txikiak ekarri ditu. Egileak nabarmendu du lan grafikoak ez direla oso garesti saltzen, edizio zabalak direlako.



Baroja Colletek modernitatea errebindikatzen du aspaldiko teknikak erabilita.

Garbiketetan profesionalak gara

943 71 48 45

607 94 89 84

www.hemen-garbiketak.com

Gora Santamasak!

Hemen
GARBIKETAK

Gabonetan, Bandaren 10. urteurrena eta ikasleen kontzertuak eskolan

ER BARANDIARAN

Arrasateko Musika Eskolako ikasle mordoak dauzka, eta horiek guztiak euren ezagutzak erakusteko deseazten egoten dira. Horregatik, hainbat kontzertu egingo dituzte. Gabon zaharretako kontzertuan Bandak bete dituen hamar urteak ospatuko dituzte.

Martitzenean, hilaren 21ean, Arrasateko Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute Musika Eskolan.

18:00etan izango da, eta ikasle ugari hartuko dute parte. Batz bestea 60 bat lagun izango dira. Besteak beste, Banda Txikiak eta hainbat taldek joko dute. Arduradunen esanetan, instrumentu askoren doinuak entzuteko aukera izango da. Ateak zabalik egongo dira edonork kontzertua ikus eta entzun dezan.

Hilaren 28an, martitzena, Arrasateko Musika Eskolako txistulariek ere kontzertua egingo dute eskolan. Hori 18:30ean izango da. Zazpi musikariek esku hartuko dute, eta, besteak bes-

te, honako abestiak interpreta-tuko dituzte: *Gabon gaua* eta *Olentzero*, biak hala biak kantu herrikoiak.

BANDAREN 10. URTEURRENA

2004a ondo bukatzeko, urtero moduan, hitzordua egin dute abenduaren 31rako. 11:00etan, Arrasateko Musika Eskolako Bandak kalejira egingo du, herri-tarrak alaitzeko eta eguerdian egingo duen kontzertua iragar-tzeko. Emanaldi hori 13:00etan izango da, Amaia Udal Antzo-kian. Dagoeneko kantuak auke-ratuta dituzte, eta guk iragarri-ko dizkizuegu: *Gerona* (S.Lope), *Kalerik Kale* (J. Minarriz), *El bar-quillero*, *Arrasate Musikal* (J. Arzamendi), *Batman* (T. Sahashi), *El Señor de los anillos* (J. De Meiji), *Piratas del Caribe* (K. Badelt), *Cristobal Columbus* (Vangelis), *Ume eder* (herrikoia) eta *Olentzero* (herrikoia).

Bandaren hamargarren urteurrena dela-eta, berrikun-tzak egongo dira. Horien artean, *El barquillero* piezan bi solista egongo dira, biak abeslariak: Mikel Izurategi eta Iñaki Olai-zola. Pieza hori zarzuelarako egin-da dagoen aria komiko bat da.

Horrez gain, *Cristobal Colum-bus*, *Ume eder* eta *Olentzero* kan-tuetan lengoia musikala ikasten dabilen ikasle talde batek abes-tuko du.

Musika Eskolak aipamen berezia egin gura die Bandaren urteurrenari eta hori posible egin duten lau zuzendariri: J. R. Vito-ria, Eduardo Artzamendi, J.R. Elkoro eta Iker Olazabali.



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Arrasateko Musika Eskolako Banda ospakizunetan dabil.

'Giriguai' ikuskizuna Zirko Ttiapiaren eskutik, Amaian

I.B.

Herriko txikienek ere izango dute zer ikusi Gabonetan. Hilaren 26an, domeka, Zirko Ttiapiak *Giriguai* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzo-kian, 17:00etan. Virginia Imazek zuzenduko du.

Aspaldi ez da zirkurik etorri Arrasatera. Azkeneko aldia San Juanetan izan zen, baina ezagun da umeek eta gaztetxoek zirkua oso gustuko izaten dutela. Ez da tamaina handiko zirkua izango, baina bai gaztetxoak asetzeko nahikoa.


Zelenina, Pibo eta Kilikor zirku tradizionalan ibilitako hiru lagun dira. Zeleninak gauzak ondo egitea du gustuko, Pibok pasio handia jartzen du egiten dituen gauzetan, eta Kilikor urdu-

ri egongo da, honako hau bere debuta izango delako. Pertsona-litate horien batuketak hainbat egoera berezi sorraraziko ditu.

Giriguai oso ikuskizun zaba-la da. Izan ere, zirku tradizio-nalaz gain, dantza, malabarismoak, ekialdeko kultura, musika eta ikusleen parte-hartzea uztartzen ditu, besteak beste.

Virginia Imaz da zuzendaria. Imazek ibilbide handia dauka ikuskizunetan. Besteak beste, Oihulari Klown taldeko sortzai-leetako bat da, ipuin kontalaria ere bada, eta atzerrian ere ibili izan da zirkuetan lanean. Eszenograzioa Patxi Araujo arduratu da, eta musika prestatzeko lana Txema Artetak hartu du.

Kiti Cancel da Zelenina, Patxi Erro da Pibo, eta Josu Florenti-no da Kilikor. Hirurek lan han-dia egin beharko dute.



ZIRKO TTIPIA

Zirku tradizionalaz gain, beste gauza asko eskainiko dituzte *Giriguai* lanean.

LIBURU ETA PAPERDENDA

HIRE

BIDAIAK ETA NARRUZKO ARTIKULOAK

Iturriotz, 4 • Tel./Faxa: 943 79 14 84

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Altzariak eta dekorazioa

Htxe
mobiliario y decoracion

Ondo pasatu Santamasak!

Ferrerias 17 Tel. eta faxa: 943 79 03 17

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

ESKORIATZA

Tfno 714345

MENDIOLA

ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Jose Ramon Otamendi

OTAMENDI HARATEGIA

XABIER URTZELAI

Jose Ramon hamahiru urtekin hasi zan karnizerixan lanien, eta oin dala hogeita zazpi urte etorri zan Mondraguera. Han eta hamen karnizero ibilli eta gero, Ferreriasen ipiñi euen dendie eta handik Olarte kalera etorri die.

Gaztetatik lanbide horretan.

Bai. Hamahiru urtekin eskolatik urten eta karnizerixara jueten nitzen ofiziuze ikestera, eta gaur arte.

Argi euketzun, hortan, karnizero izen gure zeuela.

Baietz uste dot, gaztetatik hasi nitzen eta horretan lanien.

Gabonak gain-gaiñien dauz; ze salduko dozue gehixen?

Txuletak, solomilluek, urdeiazpiko ona... Gabonetan jentiek kalidade haundiko produktuek eskaketan dau.

Nundik ekarten dozue okelie?

Elosuko baserrittar batei erosten dutzet, Balentin Gabilondori. Zazpi karnizerixandako eukitten dau okelie.

Saltxitxerixie be badauketzue.

Bai, baiñe hori sanidadekuen kontue da. Txarkuterixie ez jakun interesetan, eta saltxitxerixa izena ipiñi gutzen.

Ze alde dau karnizerixako saltxitxen eta enbasautakuen artien?

Haundixe, esango neuke. (Barre) Geuk txarri okeliez eta oilasko okeliez egitten dou saltxitxak.

Aurretik preparautako platerak be eukitten dozue. Nagiketan gabitz, ala?

Ez dot uste horregaittik danik. Kontue da jentie prixiekin bizi dala, eta bakarrik bizi danak edo bikotekidiez bizi die-

nak ez die hasiko txapiroiek euren dako bakarrik preparetan. Kontu horrekin sorpresa haundixe hartu dot. Pentsetan neuen jente gaztie etorriko zala holakuek erostera, baiñe nagusixek erosten daue gehixen.

Ze eukitten dozue?

Lelengo plater moduen paellie, menestrak... Eta bigarren plater moduen, piper betiek, txapiroiek, oilaskue frijidute, bakallaue, zazpi-zortzi kroketa klase, redondue saltsan... Eguaztenetan eukitten dou jenero gehixen, eta 35 plater inguru eukitten dou.

Etxien egindakuek?

Bai, bai. Hamen daukoun dana etxien egitten dou.

Zein da zeuon espezialidadie?

Txorixuek eta buzkantzak, esango neuke.

Ze elegiduko zeuke: txuletie, solomillue ala bildotsa?

Txuletie.

Ondo egindde ala gutxi egindde?

Gutxi egindde!

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Eskuek.

Lanien zerek egitten dutzu begixetan min?

Desordenak.

Lanetik urtendakuen, ze?

Kazan egin.

Orduen be okela bille?


Ez, kazan ez naz jueten okela bille, nahikue okela dauket hamen.

Lana alde batera itxitte: kapritxo bat?

Eskoziara juetie.

Kazan egittera, seguro.

Bai.



“Okelie Elosuko baserrittar batei erosten dutzet. Zazpi karnizerixandako okelie eukitten dau”

“Pentsetan neuen aurretik preparauteko platerak jente gaztiek erosiko euela. Konfundidute neuen”

JOSE ANTONIO

gizonezkoen ile apaindegia

Gabon zoriontsuak!!

Otalora lizentziaduna, 22
Tel.: 943 79 42 10

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ARPE

Ile apaindegirako artikuluak

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

MENDIZABAL okindegia

egunero zure alboan!

ARRASATE

Seber Altube 2

943 79 89 60





Gabonetako Marrazki Lehiaketan ludoteketako 50 bat gaztetzok hartu dute parte

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdik Gabonetako Marrazki Lehiaketa antolatu du. Urtero antolatzen dute, eta azken bi urteotan Santa Marinako eta Okendoko ludoteketako erabiltzaileei egin diete deialdia. 50 bat gaztetzok esku hartu dute marrazkiak eginez.

Gabonetako Marrazki Lehiaketaren izenematea azaro erdialdean zabaldu zuten aipatutako bi ludoteketan. Lehiaketak oso

harrera ona izaten du, eta aurtengoa 50 bat lagunek esku hartu dute. Bi sail egin dituzte: bata, 3 eta 8 urte bitartekoa; eta bestea, 9 eta 12 urte artekoa.

Dagoeneko badakite zeintzuk diren irabazleak. Honako hauek, hain zuzen ere: Okendoko ludoteketako 3 eta 8 urte arteko irabazlea Josu Barreiro da. Barreirok 7 urte dauzka. 9 eta 12 urte arteko sailean Jon Zubizarretak jasoko du saria. Jonek 11 urte ditu.

Horiez gain, Santa Marinako ludotekan irabazle bakarra dago. 3 eta 8 urte artekoen artean Jone

Palacios nagusitu da. Jonek 6 urte ditu.

MARTITZENEAN, GABONETAKO JAJA Martitzenean, hilaren 21ean, Txatxilipurdik ludoteketako Gabonetako jaja egingo du Okendon. 17:30ean erabiltzaile gaztetzoei bat egingo dute, eta hainbat ekitaldi egingo dituzte: jolasak, txokolate-jana, lehiaketako sari banaketa eta sorpresak.

Antolatzaileek iragarri digute lehiaketako irabazleen artean sorpresaz betetako motxilak banatuko dituztela. Zorionak!

Santa Marinako eta Okendoko ludoteketako 50 bat gaztetzok hartu dute parte

Marrazki lehiaketako irabazleei sorpresaz betetako motxilak oparituko dizkiete

Martitzenean, Gabonetako jaja egingo dute Okendoko ludotekan, 17:30ean

IRABAZLEAK



Jon Zubizarreta (11 urte)
Okendoko ludoteka. 9-12 urte.




Josu Barreiro (7 urte)
Okendoko ludoteka. 3-8 urte.



Jone Palacios (6 urte)
Santa Marinako ludoteka. 3-8 urte.

Amagara

Erdiko kale 54 behea ARRASATE Tel.:943 79 09 09



2005 zoriontsua

AHAL IZANEZ GERO,
ilargia

OPARITUKO GENIZUKE
BITARTEAN, *bihotz-bihotzez*
EGITEN DUGU GUZTIA.



Bengoa

Basati

Biona

Jai Zale

Ekaitz

Branka

Boliñete

Ge
girok
om

Lora

Express


Gure Leku

Ametz

Monte

Irati


Itzala



ean
ikirik
na

IBAI-ARTEARRASATEKO ZERBITZU
ETA MERKATARIEN ELKARTEA

Aldedi	Kutxa
Alonso Anaiak	La Caixa
Altuna	Landaluze
Anboto	Lasagabaster
Aranzabal	Lilura
Arrasate Zoo	Lorategi
Arregi	Lore
Bea	Los Vaqueros
Bed's	Luko
Beinke	Mabel
Belem	Marga
Ceciaga	Markiegi
Egizabal	Maza
Ehune	Mayte
Elkoro Expert	Milar Elkoro
Eya	Monte
Eya	Muruamendiaraz
Elorza	Oihana
Eroski Bidaiak	Onandia
Etxe Lan	Otamendi
Etxe Mobiliario	Parlance
Euskadiko Kutxa	Phildar
Feli	Portaloiko Kioskoa
Flash	Portaloi Optika
Foto Imagen	Publidenak
Garagorri	Sikol
Gili-Gili	Sugar
Haurtxoa	Tokion
Hemen	Tomas
Hire	Troko
Ikatz	Txuntxurunberde
Itzala	Udalaitz
Izozkitegi	Ume
J. Uriarte-Tamayo	Uriarte Sport
J.G.	Urrats
Juanma	Zabaleta
Kajoi	Zarraoa
Kilikolo	Zubia
Klas	Zubiaga
Koro Zabaleta	Zur-Lur



Gabon hauetan

Ibai-Arten erosteagatik oparia seguru izango duzu!

Zorionak!

**NACEX**

Servicio Exprés

EUSKONACEXazken gailurreraino
heltzen gara**NACEX-ARRASATE****943 79 92 77**

E, TXO!

GABONETAKOPARKEA/ URTARRILAREN 2TIK 5ERA BITARTEAN

Urtarrilean, Gabonetako Txikilandia parkeak Musakolako kiroldegia hartuko du

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdi elkarte iraila ezker dabil lanean Gabonetako Txikilandia parke erraldoia egiteko. Urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean egingo dute Musakolako kiroldegian, eta hainbat berrikuntza ekarri dituzte inguruetako ume eta gaztetxoendako.

Aurtengoa Txikilandiaren hamabosgarren edizioa da. AED hasi zen ekitaldia antolatzen, eta azkeneko hamar urteotan Txatxilipurdik hartu du lan hori. Urtarrilaren 2tik 5era bitartean Musakolako kiroldegia umez, gaztetxo, jostailuz eta jokoz beteiko dute.

Aurten parkeak bost gune izango ditu: barruko kantxa, Antoñako kantxa, Gurasoteka, informatika gela, umeen txokoa eta sarrera. Denetatik izango da. Honako puzgarriak eramango dituzte: txirristak, gazteluak, igela eta beste batzuk. Tailerrak ere izango dira, jakina: aurpegi margotzea, ile-apaindegia, globoflexia, eskulanak, argazki tailerra... Eta ordenagailu gelan hamar bat ordenagailu ipiniko dituzte.

Berrikuntzen artean honako hauek nabarmendu dituzte: ohe-elastikoak, *goming*-a, mahai-futbol bizia eta kirol-jolasak egongo direla. Horiez gain, aurten, Gurasoteka handitu egingo dute, eta kafea eta gozoak doan banatuko dizkiete guraso *txintxo*ei.

EGUNERO, PATIN BANA ZOZKATU

Antolatzaileek aditzera eman digute aurten ez dela autobus zerbitzurik egongo. Erabilera ez zen oso handia, eta Txatxilipurdik gurago izan du diru hori Txikilandiako beste ekintza batzuetan gastatu.

Egunero patin bana zozkatuko dute parkean. Sarrera erostekoan, galdera bati erantzun beharko zaio, eta asmatzaileen artean patinak zozkatuko dituzte. Horrez gain, egunero karaokea eta ipuin kontaketak egingo dituzte parkearen barruan.



TXATXILIPURDI

Ehunka ume eta gaztetxo joaten dira parke erraldoira jolastera.

Gurasoen txokoa handitu egingo dute, eta igerilekua umeek bakarrik erabiliko dute, egun batez

IGERILEKUA OSO-OSORIK, EGUN BATEZ

Aurreko urteetan, Txikilandiako lagunek igerilekua lau egunean erabil zezaketen, beste erabil-tzaileekin batera. Aurten, berriz, igerilekua egun bakarrean hartuko dute, hilaren 4an, baina ezin izango du beste inork erabili. Igerilekuan puzgarriak izango dira, eta hainbat joko egingo dituzte.

Urtarrilaren 2tik 4ra 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik parke, eta hilaren 5ean, goizez bakarrik. 40 begirale eta bi arduradun ibiliko dira lanean.



TXATXILIPURDI

Txikilandiak 15 urte bete ditu dagoeneko.

Xarmaz beteriko loradenda



BELEN MAIZTEGI

LORAK

- Teleordainketa
- Enkarguak hartzen dira

Biteri etorbidea 13 - ARRASATE - Tel.: 943 08 15 44

'Salamalekum Euskal Herrira' jolasa sortu du Txatxilipurdik, integrazioa bultzatzeko

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdi elkarteak *Salamalekum Euskal Herrira* jolasa sortu du, eta salgai jarri du 10 eurotan. Jolasa 50 fitxak eta beste horrenbeste marrazki osatzen dute. Marrazki bakoitza euskaraz eta hassanieraz -Saharan egiten duten arabiera- idatzita dago.

Txatxilipurdiko lagunak premia bat ikusi zuten: Saharako umeak hartzen dituzten familiek ez dutela jakiten hasieran umei zelan harrera egin berotasunez. Horrez gain, Txatxilipurdiko udalekue-tara, askotan, ume sahararrak joaten dira eta begiraleek lehenengo egunetan ez dute jakiten zelan harrera egin. Horretaz guztiaz jabetuta eta, bide batez, hemengo hartzaileek hassaniera eta ume horien kultura ezagut dezaten jolas hori sortu dute.

EUSKARA ETA HASSANIERA

Bergaran bizi den neska saharar batek lagundu die euskararen eta hassanieraren arteko itzulpenak egiten, eta 50 piezaz osatutako jolasa sortu dute. Pieza bakoitzak marrazki bat dauka, eta bi hizkuntza horietan idatzita daude. Horrez gain, fonetikoki hassanieraz hitz euskaldunak zelan esaten diren eta euskaraz hitz hassanierak zelan esaten diren azaltzen dute.

Txatxilipurdiko arduradunen esanetan, Saharako umeek Euskal Herrira etortzen direnean berehala ikasten dute hemengo



Sahararren eta euskaldunen artean integrazioa bultzatzeko jolasa da.

hizkuntza eta kultura. Hala ere, uste dute euskaldunoi ere kome-ni zaigula ume horien kulturaren gainean ikastea.

Txatxilipurdiko lagunak esanetan, jolas horren helburua da bi herrien artean izaten diren harremanak, batik bat hasierako hartu-emanak eta konfiantza sor-

tzeko uneak modu ludikoan erraztea. "Tresna beroago eta hurbi-lago bat eskaini gura diegu euskal eta saharar herriei".

Modu berean, jolasaren sortzaileek diotenez, hauek dira umeek gara ditzaketan alderdiak: oinarritzko saharar eta euskal hiztegien ezagutza, aditasuna, ikus-

te-oroimena, arauak errespetatzea, soziazitate eta espazioko orientazioa, hain zuzen ere.

Jolasa 10 eurotan saltzen dute, eta eskuragarri dago Txatxilipurdiko bulegoan (Pablo Uranga kalea). Horrez gain, Txikilandia jolas parkean ere berau eskuratzeko aukera izango da.

LABUR

Gaur, bihar eta etzi, Jostailu Trukaketa Merkatua

Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, Jostailu Trukaketa Merkatua egingo dute gaztetxean. Ekimen hori Txatxilipurdi elkarteak abiarazi du, eta asmoa da familiek jostailuak erosteko ahalik eta diru gutxien gastatzea.

Orain dela hilabete batzuk, Txatxilipurdiko lantaldea gai jakin baten gaineko hausnarketa egiten hasi zen. Asmoa zen Gabonetako gehiegizko kontsumoa ludoteketan lantzea. Horretan zebiltzala, jostailuak prezio merkean eskuratzeko ekimena abian jartzea bururatu zitzaion. Eta bide batez, etxean erabili barik dauden jostailuei erabilpena ematea.

Horretarako, Txatxilipurdik hainbat astetan jostailuak batu ditu herrian. Izan ere, dagoeneko, 180 bat jostailu lortu ditu, guztiak egoera oso onean. Azoka horretarako jostailuak eman dituztenek txartelak eskuratu dituzte. Orain, azoka egingo duten egunetan, txartel horiekin beste jostailu batzuk hartu ahal izango dituzte.


Azoka gaztetxearen sarre-ran ipiniko dute. Gaur, egubakoitza, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Bihar, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; eta etzi, 10:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere. Aspaldiko gaztetxe-ko bigarren eskuko azokari lekukoa hartuko dio.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

PUB HAIZEA



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta billegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Astra berria Ulertzen duzu zergatik dioten etorkizuna geroz eta azkarrago datorrela?



Etorkizuna heldu da Opel Astra berrira. SAFETEC sistemari esker teknologia aurreratuenaz bere mailako autorik seguruena da EuroNCAP* 5 izarrekin. Diesel gamako motor indartsuenak eta ondorengo motor berriekin 1.9 CDTI 120 ZPtik 150era eta gasolina motorrak 200 ZPrainoak.



Eta gainera ekipamendu osoenarekin: •IDS^{plus} Gidatze Sistema Interaktiboa • ESP^{plus} Egonkortasunaren Kontrol Elektronikoa • Taplus Trakzio Kontrola • Sport Switch botoia • AFL faro moldakorrak • ALC argitasunaren kontrol automatikoa • ABS balazta sistema • 6 aire-zaku • CBC Balazten Kontrola Bihurguneetan • EHPS Direkzio Lagundua • HSA Irteera Sistema Aldapetan.

12.670 €** Astra bat daukazu. Proba ezazu 902 200 590 telefonoan edo www.opel.es webgunean.

*Puntuazio altuena alboko eta aurretiko inpaktuan txoke proban eta umeen babesean Sedan trinko kategorian. **Salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balearretan Opel Astra Essentia 5 ate 1.4 16v 90 ZP autoarentzat hilabete bukaera arte. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kit akzesorioak, promozio deskontua eta gasolina Prever Plana barne. Astra gama: kontsumoa (l/100km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO2 emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

San Andrés 10D. Tel. 943 77 30 10. **ARRASATE**

ZAHARREN ETXETIK

Musakolako karta jokoan, lehia handia

IKER BARANDIARAN

Musakolako erretiratuen elkartearen karta joko txapelketak egin zituzten joan den astean. Musean, tutean eta briskan ibili ziren hainbat lagun. Azkeneko egunean, sari banaketa eta txokolate-jana egin zituzten.

Musakolako erretiratuen elkartearen urtean birritan karta joko txapelketak antolatzen dituzte. Bata, San Isidro jaietan egiten dute, eta bestea, Gabonen aurretik. Hain zuzen ere, aurreko astean, hilaren 6an, 7an, 8an eta 9an jokatu zuten txapelketa. Urtero moduan, briska, tute eta mus txapelketak egin zituzten. Horretarako, elkarteak barrualdean daukan gela handia erabili ohi dute.

Astelehenean, hilaren 6an, zortzi bikotek -guztiak emakumezkoak- briskan egin zuten. 16:00etatik 18:30era ibili ziren horretan, eta lehia handia izan zuten. Azkenean, iazko bikote bera izan zen irabazle: Mikaela Muruak eta Juanita Gilek osatutakoa.

Bi lagun horiek ordezkaturako dute Musakolako elkartearen 2005ean egingo duten erretiratuen eskualdeko txapelketan.

Horrez gain, martitzenean, hilaren 7an, musean egin zuten. Hamaika bikotek bat egin zuten -guztiak gizonezkoak-, eta 16:00etatik 19:00etara bitartean gogor ibili ziren jokoan. Horien finala egubakoitzean, hilaren

10ean egin zuten, eta honako hauek izan ziren irabazleak: Calisto Igual eta Segundo Naveiro. Hortaz, Musakolako elkartearen ordezkaturako dute ibarreko lehia-joketan.

EGUBAKOITZEAN, FINALAK


Eguaztenean atsedena egin zuten. Eta egunean berriro ekin zioten jokoari. Tutearen txanda izan zen. Guztira, hamasei bikotek esku hartu zuten, guztiak gizonezkoak. Elias eta Felix Uranga lehengusuak izan ziren irabazle.

Egubakoitzean, tute eta mus finalak egin zituzten. Eta horren ostean, sariak banatu zituzten. Aurten, kopak eman beharrean, janaria eta edaria banatu zuten. Hain zuzen ere, xanpaina, ardoa eta turroia. Behin sariak banatu ondoren, astean jokoan ibilitako lagunek txokolate-jana egin zuten. Lehiakortasuna alde batera utzita, giro paregabean igaro zuten arratsaldea.

LEKU FALTA IZATEN DUTE

Askotan esan ohi dugu Musakolako erretiratuen elkartearen erabiltzaile guztiendako leku txikiak dutela. Arrazoi horregatik urtean ez dituzte ekintza asko antolatzen, leku nahikorik ez dutelako. Horren ordez, erretiratuen tabernan egoten dira epeletan, lagunekin berriketan edo karta jokoan.

Hala ere, elkarte horretan ekitaldiak egiten dituzten bakoitzean, erantzun oso ona izaten dute, eta giroa oraindik hobea da.



Musakolako erretiratuek oso gustuko dituzte karta jokoak.

IKER BARANDIARAN

75 urtetik gorako lagunei, omenaldia

Orain dela bi aste Abaroa elkartearen 90 urtetik gorako bazkideei omenaldia egin zieten. Hala idatzi genuen orrialde hauetan, eta bizitza-itzaropena handitu dela-eta, adin horretako gero eta lagun gehiago daudela nabarmendu genuen.

Herrian dauden gainontzeko hiru erretiratuen elkarteetan ere bazkide zaharrenei omenaldiak egiten dizkiete. Horra hor, Santa Marinako Toki Argi elkartearen auzoko jaietan egiten dutena, eta Uribarri elkartearen ere urtero egin ohi dutena.

Musakolan halako bi ekitaldi egiten dituzte. Bata, San Isidro jaietan. Auzoko nagusienei gonbidapena egiten diete eta

Kataide jatetxean afaria egiten dute. Horren ostean, sari banaketa eta zozketa egiten dituzte.

Horrez gain, gaur, egubakoitza, Musakolako erretiratuen elkarteak 75 urtetik gorako bazkideak omenduko ditu. Urtero, sasoi honetan, elkartearen zaharrenek batu eta askaria egiten dute. Iaz 27 lagunek hartu zuten parte eta aurten beste horrenbeste izango direla aditzera eman digute. Lerro hauek idazterako orduan, 20 baino lagun gehiagok emana zuten izena.

17:00etan elkartuko dira eta askaria izango dute: txokolatea eta txurroak, hain zuzen. Ostean, guztiei opariak emango dizkiete.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Naroki

Mondragon
Unibertsitateko
ikas liburuak
Eskolako materiala
Betizu-ren opariak salgai
Karrodon motxilak
Portzelanazko panpinak
Jolas didaktikoak...

Erdiko kalea 23
Tel.: 943 79 20 47
Arrasate

Aretz

taberna

"Oilaskoak eta
paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



MAE
Bidaiak

**Ondo pasatu
Santamasak!**

Maalako errebala 23
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 16

King's
Ile apaindegia

Zarugalde 23. ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88



NATUR HOUSE

Dietetika eta Elikadura

Gabon zoriontsuak!!!

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

ZAHARREN ETXETIK

Jaiotza erraldoia ipini dute Toki Argi elkarteak

IKER BARANDIARAN

Azken 14 urteotan Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteak jaiotza erraldoia ipini ohi du, eta aurten ere hala egin du. Elkarteko presidente ohi Bixente Azkaratek hartzen du ardura hori, beste batzuen laguntzarekin.

Toki Argi elkarteko erretiratuak astean ibili dira jaiotza ipintzen, eta Erregeen Eguna osterara arte egongo da ikusgai Santa Marinako auzo etxean, egunero, 11:30etik 22.00etara bitartean. Jaiotza hori oso handia da. Gutxi gorabehera bederatzi edo hamar metro koadro ditu. Belenzaleen Elkartek Laubiden ipintzen duena alde batera utzita, herriko jaiotza handiena da. Are gehiago, Azkaratek aditzera eman digunez, aurtengo jaiotza ohikoa baino handiagoa da. Orain arte pieza guztiak egurrezko oinarri baten gainean jarri dituzte, baina aurten Udalak aluminiozko bat egin die, eta horren gainean aukera dute jaiotza handiagoa egiteko. Horrez gain, orain arte paper urdinarekin apaintzen zuten, baina aurten oihala jarri dute. Azkarateren asmoa da, aurrerantzean, sare bat ipintzea.

Jaiotza 50 bat piezak osatzen dute eta Euskal Herriko hainbat dendatetik ekarritakoak dira. Hainbat urtean erosi dituzte, eta, tarteka, Toki Argi elkarteko eskulanetako lagunek pieza horiek margotu egiten dituzte.

Urtez urte, pieza gehiago ipintzen dituzte, eta hainbat eta hainbat ordezkatu egin behar izaten dituzte. Marmolezkoak izaten dira, eta, diotenez, garesti samarrrak dira. Gabonak heldu artean, pieza horiek eskulanen gelan gordetzen dituzte.

BIZPAHIRU ORDU GUZTIA JARTZEKO

Hori guztia jartzeko denbora behar izaten dute. Aspaldi zazpi bat ordu igarotzen zituzten zeregin horretan. Gaur egun, berriz, hainbat lagun batzen dira, eta bizpahiru orduan bukatzen dute egin beharrekoa.

Herrian ospe handia dauka Toki Argiko jaiotzak. Orain dela sei bat urte, elkarteak bi jaiotza ipintzen zituzten: handiena ohiko lekuan eta beste bat, askoz txikiagoa, sarreran. Gerora, bakarra jartzea erabaki zuten, eta hala egin dute azken urteotan. Santa Marinako bizilagun asko eta asko urtero joaten dira hura ikustera. Horrez gain, erdialdetik eta herriko beste auzo batzuetatik ere jende dezente joaten da urtero.

BERBALDIAK ETA BIDAIA

Bestalde, Toki Argi elkarteak bestelako ekintzak ere antolatu dituzte. Esaterako, astelehenean, hilaren 20an, begi-lausoen gaueko berbaldia egingo dute, 17:00etan, eta Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak egingo du. Horrekin, osasunaren gainean egin dituzten jardunaldi zabalak bukatuko dituzte. Besteak beste, honako gaiak jorratuko dituzte:



GORKA MORRAS

Ikusgarria izaten da Toki Argi elkarteak ipintzen duten jaiotza.

burmuina, sendagaiak, alergiak, bihotzeko gaitzak, eta abar. Horrez gain, Santa Marinako erretiratuek Parisa bidaia egingo dute 2005ean. Dagoeneko zabalik dago izenematea, eta, jakina, elkarte horretako bazkideek lehentasuna izango dute horra joateko.

LAUBIDEKO JAIOTZA

Bestalde, gogoratu beharra dago Belenzaleen Elkartek ere ipiniko duela jaiotza, Laubiden. Bai-

na aurten aldaketak izango ditu: Jesusen jaiotza bakarrik irudikatuko du. Elkarteko kideek adierazitakoaren arabera, diru falta dela eta hartu dute erabaki hori. Edozelan ere, Epifania Egunean -urtarrilaren 6a- Erregeen adorazioa ere irudikatuko dute.

Bestalde, Gabon kantuen gainean iaz izandako kritikak direla eta, Belenzaleen Elkartek aditzera eman gura du aurten euskarazko, gaztelaniazko, inge-

leseko eta latinezko kantuak ipiniko dituztela, "ez dutelako inor baztertu nahi". Eta ahaleginduko direla hizkuntza bakoitzeko kantu kopuru bera ipintzen.

Bukatzeke, elkarteak aurrerantzean ere jaiotza ipini ahal izateko, laguntza beharrean dagoela gogoratu du: Caixa 2100 1972 00 0200059461; Euskadiko Kutxa 3035 0047 1 1 047 1 06356 4; eta Kutxa 2101 0123 98 0123936791.

AREITIO kirolak

Ondo pasatu Santamasak eta Gabon jai zoriontsuak

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON !!!

Zarugalde 35 Tel: 943 79 38 38

20.500 ARRASATE



Izan zoriontsu 2005 urtean !!!



LEINTZ GARRAIOAK S.L

230 Postakutxa - San Andres Auzoa 10 D

20500 ARRASATE

Tel : 943 71 27 07 / Faxe : 943 71 17 69

e-malla : leintzgarraioak@leintz.com www.leintz.com

EZETZASMATU



Noizkoa da Santamasetako irudiotako argazkia?
Arrastoa: argazkikoek oraindik ere gazte-gazte izaten segitzen dute.

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Suances otarrainxkak
45/65 pieza, kilo biko kaxa

11,85€ 1.972 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

DANEL LEUNDArendako izan da 30 euroko
erosketa-txartela. Zorionak, Danel!
Galderen erantzun zuzena:
Kanpantorpea.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (VI)


'ARRASATEKO BASERRI...' / G. ARZELUS

Arrasateko auzoetako bideen gaineko izendapenarekin segituz, Gesalibar, Zaldibar, Garagartza eta Bedoña bisitatuko ditugu oraingo honetan:

“Artabilla bide (Gesalibar, 1899): Argierrota etxearen parean eta errepedearen bestaldean, bide batek gorantz jotzen du; 1899an aipatzen den Artabilla bidea ziurrenik. Hala ere, lehenago batean baserrikoak Bustingorrietatik jaisten zirela dirudi. Intxaurtxueta bidekurutzea Artabilla bidetik gertu dago.

Aspobalts (Zaldibar, 1594, 1602, 1620, 1778 eta 1899): (...) Antzarigartu bidearekin batera dator, nahiz eta azken zatian bide horiek banatzen diren. 1594an esaten denez, bide batek baserria eta herrigunea lotzen zituen, beste batek, berriz, baserria eta Azuelako mendiak. Azken horrek ez zuen erregebidea jarraitzen, Aspobaltzburuko basoetatik baitzihoan. Bestalde, baserriraino doan bidea asfaltatuta dago eta handik gorantz baso-pistek jarraitzen dute.

Astabide (Garagartza, 1827, 1862): seguraski, Garagartzako Fagor lantegia eraiki zenean desagertu zen Astabidea. Kasu batzu-



Azube bidea Bedoñarakoaren zati bat zen, hau da, Takolo ingurutik Bedoña alderako bidea.

tan Artabide izenez ere agertu izan da dokumentuetan. Normalean, Astabide edo Artabide hitza hango eremu edo lursailak adierazteko erabiltzen bada ere, izenak berak esaten digu noizbait bidea izan zela (agian asto eta mandoekin handik ibiltzen zirelako?).

*Fagor lantegia
eraiki zenean
desagertu zen
Gargartzako
Astabidea*

Ziurrenik, auzunea eta Urdaixena baserria lotuko zituen; hala ere, ez du egun dagoen bidearekin zerikusirik.

Atxabal bide (Gesalibar, 1779): Garagartza eta Gesalibar auzoen artean dagoen Atxabal mendiskatik, aipaturiko bi auzo-

etara daraman bidearen izena da. Kobatera iritsi baino lehenxeago ezkerraldera dagoen bide hori (pare bat karobi dituzenez handik burdiak ibiltzen ziren), Gesalibarreko Parraia baserritik gertu irtetzen da.

Azube bide (San Andres, 1476, 1899): gaur egun hiru dira Azube izena duten etxeak, guztiak ere San Andresen, Bedoñarako bidetik gertu. Denetik zaharrena Azube-azpi da, lehen Azube deitua. Hala ere, gainaldean beste baserri bat eraiki zenean, batak Azube-azpi izena hartu zuen eta besteak Azube-gain. Duela urte batzuk hirugarren bat eraiki zen Azube-alde izenekoa.

Azube bidea, Bedoñara zihonaren zati bat zen, hau da, Takolo ingurutik Bedoña aldera zihonana. Azube bide hori oso zaharra eta aspaldikoa omen zen, eta adibide bezala bidea Azube-azpi baserriaren erditik pasatzen zela esan dezakegu. Horrek esanahi asko izan ditzake: bidesariak ordaintzeko tokia zela, karga eta deskarga lekua zela edo baserria egin zenean bidea horrez gero zabaldua zegoela (azken aukera hori izan daiteke logikoena). Beranduago, baserritik alde batera desbideratu zen bidea eta lehen igarotzen zen lekuan hormak eraiki ziren”.

Santamasak

ARRASATE / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a / SANTAMAS JAIEN GAINEAN ZENBAKI BEREZIA



Hausnarketarako
Santamasak

ARGAZKIA: ANDER GILLENIA



Erdiko kale 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94



Bertako barazkiak eta produktu bereziak eskainiko dituzte azokan

Seber Altube eta Laubide plazetan egongo dira barazki, fruta, ezti eta gainontzeko jakien postuak aurten ere. Bertako baserriarrak zein gonbidatuak etorriko dira bai lehiaketan parte hartu zein elikagaiak saltzeko. Aurten ere saltoki ugari izango ditugu, batez ere gazta eskaintzen.

Barazki eta fruta saltokietan 22 baserrik eskainiko dute euren uzta. Horietatik zortzi izango dira arrasatearrak; iaz baino bi baserri gehiago etorriko dira aurten jasotakoak erakustera. Gai nontzeko nekazariei dagokienez, gehienak bailara eta inguruetatik etorriko zaizkigu: Aramaio, Berriz, Antzuola, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta zein Bergararik. Halaber, Gatika, Gabiria, Segura eta Mutrikuko ortuen produktuak ere egongo dira salgai. Jakietan, baina, Laubide plazak ere zeresan handia izango du, batez ere gazta kontuetan. Aurten apartekoa izango da gaztagileen eskaintza, eta inoiz baino etxe gehiagok hartuko du parte, hoguei batek, hain zuzen ere. Askok Arabatik etorriko zaizkigu, baina Arantzazu eta Idiazabalgoek ere ez dute aurten hutsik egingo. Hainbat tokitako eztiak dastatzeko aukerarik ez da falta izango Laubiden. Artzentales, Urretxu, Gasteiz eta Ermutik etorriko dira, besteak beste, erlezainak salmentan. Lehiaketan, berriz, eskualdeko erlezainek hartuko dute parte. Ogiatz arrasateko bi baserri arduratuko dira: Aranguren eta Bedoñakoak, hain zuzen ere. Produktuen eskaintza zaba-

la izango da plaza horretan, eta ohiko jakiez gain hainbat elikagai berezi ikusi ahal izango dira.


AUKERA ZABALA

Kontserbagileak etorriko dira Nafarroatik eta pateak eta deribatutak ekarriko dituzte Iparraldetik. Baina Arrasateko txakolina eta Eskoriatzako turroi bere-

zia ere izango ditugu, Uxarte baserrian egindakoa. Horiez gain, Harremanekoek ere euren elkartasun saltokia ipiniko dute eta loreak eta sendabelarrak ere egongo dira erakusgai. Ardozaleek Laubiden egin beharko dute geldialdixoren bat edo beste, bertan egongo direlako Errioxatik etorritako ardogileak.

Aurten aukerarik zabalena gaztetan egongo da, iaz baino saltoki gehiagorekin

Arrasateko txakolina eta Eskoriatzako turroia eskainiko dituzte



Baserriarrek aurten euren ortuek emandakoak eskainiko dituzte.

GAZTA LEHIAKETA



ARRASATE PRESS

Inoiz baino gazta aukera zabalagoa aurten

Urtero moduan, aurten ere eguerdi aldera egingo dira barazki, fruta, gazta eta ezti lehiaketak. Orduan aukeratuko dituzte zeintzuk diren produkturik onenak. Horien artean aipagarria da aurten izango dugun gazta eskaintza zabalagoa, leku eta mota guztietakoak izango ditugu eta. Hoguei bat gaztagile gutxi gorabehera izango ditugu gurean Santamas azokan. Gehienak Arabatik etorriko dira, baina ia Euskal Herri osoan ordezkariek ipiniko dituzte euren saltokiak: Arantzazu eta Idiazabalgo ezagunekin batera, Amurrio, Gereñu, Abornikano, Tolosa eta Otxandio bertatik ere etorriko zaizkigu ekoizleak. Partehartzea, beraz, apartekoa izango da eta sariak ere itzelak izango dira. Gazta, barazki eta fruta lehiaketetan honako hauek izango dira sariak: lehenak 250 eurokoa jasoko du eta bigarrenak 200ekoa. Lehiaketan, hala ere, ezti eta ogirik onenak ere aukeratuko dituzte. /J.B.



Gabon zorientsuak!



Kontzeziño kalea 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 25 98



Arrasate
OPTIKA - OFTALMIKA

Gabon & zoriontsuak !




=KANPAZAR

Tailerra : Bizkaia etorbidea , z/g . · Tel : 943 79 41 98

Erakusketa : Araba etorbidea , 32 · Tel : 943 79 77 66

Arrasate



**CANAS -
ESTEBAN S.L
ERAIKUNTZAK**

Santamas jai zoriontsuak
arrasatear guztioi!

ETXEAN NAHI DITUGU!



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRIA



JOSU ARKAUZ



UNAI PAROT



AMAIA ARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ




TXUS GOIKOETXEA



SAIOA ALZUA ETA GAIZKA AZKARATE



IGOR LETONA



Arrasateko Alde
Zaharreko tabernak:
Iрати, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz,
Biona, Basati, Kimetz

Gabonetako opariak erosteko aukera zabala eskulangintzetan

Bertako zein kanpoko artisauen lana ikusteko aukera egongo da aurten ere Jokin Zaitegi plazan. Ia 40 artisauk makina bat langintzatan hartuko dute parte azokan, eta horietako askok euren lanaren erakustaldia egingo dute postuan bertan, usadioak hobeto ezagutzeko.

Aspaldiko langintza eta eskulan modernoak, bertako artisauak eta kanpokoek egindakoak. Horiek guztiak biltzen ditu Santamasetako eskulangintza azokak. Euskal tradizioko eta gaur egungo apainketako objektuak aurkitu ahal izango ditugu Arrasatera etorriko diren ia berrogei artisauen esku iaioetatik. Kopuru aldetik iaz bestekoa izango da partaidetza, ia 40 artisauk eman dute eta izena, Udaleko ordezkariak azaldu digutenez. Urtero moduan, Jokin Zaitegi plazan egingo da aurten ere eskulangintza eta artisauen azoka.

Bertatik zein kanpotik etorriko dira eskulangile ugari, eta, hala, makina bat langintza ikusteko aukera egongo da. Horietako asko, gainera, postuan bertan egongo dira, eta artisauak lanean ikusteko aukera izango dugu.

Inguruetatik, Debagoienetik hain zuzen ere, 15 artisau etorriko dira. Ohiko langintzen barruan, zeramika, taila, bitxi-gintza, larrugintza eta buztin-gintzako postuak ikusi ahal izango ditugu. Esan bezala, askok, gainera, bertan egingo dituzte euren lanak —egur taila adibidez—, eta aukera paregabea izan-

go da langintza horiek guztiak gertuagotik ezagutzeko.

Gainontzeko parte-hartzaileak Euskal Herri osotik badatoz ere, bizkaitar eta gipuzkoarrak izango dira nagusi. Langintza berezien artean musika tresnak egiten dituztenak ditugu eta ez dira falta izango, urtero bezala, lore lehor edo oinetako postuak.

Gabonak benetan gertu ditugula, aukera bikaina da artisauen azoka opariak erosteko. Horretarako, bertan izango dira jostailugileak, ehuleak eta apaingarriak egiten dituztenak. Azoka, gainera, ohitura zaharrei eusteko modua ere bada, artisauak euren lanarekin jarraitu ahal izateko.


Tradiziozko langintzak eta gustu modernoak uztartuko dituzte artisau azokan

Ia 40 artisauk eman dute izena Jokin Zaitegi plazan egingo den azokarako



Artisauak bertatik bertara lanean ikusteko aukera izango dugu.

ARTISAUAK JOKIN ZAITEGIN



ARRASATE PRESS

Loixe elkarteak tailerra egingo du

Bailarako artisau ugari hartuko du parte azokan eta horietatik batzuk Loixe elkarteak izango dira. Talde horrek, hain zuzen ere, buztin-gintza tailerra antolatu du, azokan bertan, umeei buztina moldatzen erakusteko.


Azken urteetan beti ipini dute tailerra Santamasetan Loixe elkarteak, eta aurten ere ipiniko dute. Bertan, irakasle bat neska-mutikoei tornua erabiltzen erakusten ibiliko da. Postu horretan, ikastaroetan egin dutena ere erakutsiko dute Loixekoek, bazkide eta ikasleen lanekin. Ez dute ezer salduko, beraz.

Loixe elkarteaz gain, makina bat artisauk ere egingo dute erakustaldia azokan bertan eta gura duenak hobeto ezagutu ahal izango ditu langintza hauek: zeramika, panpinak, oinetakoak, lore lehorrak, buztina, burdina eta argizaria lantzen ikusi ahal izango ditugu guztiak Jokin Zaitegi plazan. /J.B.

Gipuzkoa Etorbidea 6, Legarre Pabilioia (Arrasate) • Tel: 943 79 96 53

ZALDIBAR

errotulazio zerbitzuak



Aholkularitza, garapena eta kalitatea akaberetan

Errotulazio itsasgarria • Ibilgailuen errotulazio integrala • Barruko zein kanpoko seinalizazioa • Letra gorputzdunen fabrikazioa
Grabatuak: inox-letoria-aluminioa-plastikoa • Fresaketak: PVC-DM-metrakilatoa • Display eta moduloen fabrikazioa

Pintxorik onenak eta erakusleiho politenak lehian Santamasetan

Santamasetan, azken asteotan egindako bi lehiaketaren irabazleen berri izango dugu. Izan ere, ohiko nekazari produktuen lehiaketaz gain, pintxo eta erakusleiho lehiaketako aukeratuak erabakiko dituzte Santamasetan. Pintxo lehiaketan herriko tabernak hartu ahal izango dute parte.

Santamasetan azoka eta erakusketarekin batera mota guztietako lehiaketak ere egoten dira. Ganadu eta jaki lehiaketak ez dira Santamasetan egingo diren bakarrak; izan ere, aurten, besteak beste, Arrasateko zein tabernak egiten dituen pintxo onenak erabakiko da, urteroko erakusleiho lehiaketarekin batera.

Hala, Arrasateko pintxorik onenak zein tabernak dauzen jakin ahal izango dugu aurten, horretarako pintxo lehiaketa antolatu du eta Udalak aurten go Santamasetarako. Eguaztean goizeko hamaiketan izango da, herriko plazan. Arrasateko tabernari guztiek hartu ahal izango dute parte, abenduaren 20a baino lehen izena emanda.

Lehiakide bakoitzak pintxo bina aurkeztuko ditu: bat, asmatutakoa eta osagai moduan antxoak daukana eta bestea, gura den modukoa. Hori bai, pintxo bakoitzeko hiru arrazio aurkeztu beharko ditu parte-hartzaile bakoitzak. Epaimahaia gaian adituek osatuko dute. Tamalez, pintxoak epaimahaioek bakarrik dastatu ahal izango dituzte, eta ikusleek itxurarekin bakarrik konformatu beharko dute.



Pintxo lehiaketa, aurteno nobedadea.

ERAKUSLEIHO POLITENA NORK

Bestalde, urtero Arrasateko denden arteko erakusleiho lehiaketa egiten dute. Abenduaren 31ra arte irauko du erakustepeak eta dagoeneko prest daude denda parte-hartzaileen erakusleihokak. Hainbat alderdi hartuko dira kontuan: irudimena, orijinaltasuna, publizitate-mezuaren

baliagarritasuna, itxuraren kalitatea eta Santamas edo Gabon giroarekin zerikusia. Erakusleihoan dendako produktuek agertu behar dute.

Abenduaren 21ean emango dute erabakiaren berri, eta irabazleak 200 euroko saria eskuratuko du. Hiru erakusleiho aukeratuko dira, hala ere.

Aurten, lehenengo aldiz, herriko tabernen arteko pintxo lehiaketa egingo da

Orijinaltasuna eta giroarekin zerikusia hartuko dira kontuan erakusleiho lehiaketan

GANADUAGARIBAIEN



ARRASATE PRESS

Ganadu mordoia Garibai inguruan

Santamas azokako zati garrantzitsua da ganadua, eta aurten ere bertan izango da. Inguruko behiak izango ditugu batik bat azokan. Aurten ere Garibai etorbidean izango da ganadu eta gainontzeko animalien feria, hegaztiena izan ezik.

Behiak, ahuntzak, oñeak, *poney*-ak, astoak... Denetarik ikusteko aukera izango dugu Garibai etorbidean. Guztietatik protagonistak bertako eta inguruetak abelburuak izango dira, gehienak herri eta bailarako baserrietatik etorriko baitira. Jakina denez, gainera, salerosketarako baino gehiago, ikusteko azoka izaten da Santamasetakoa, eta aurten ere mota askotako animaliak ekartzen saiatu dira antolatzaileak.

Hegaztiak ere izango ditugu azokan, baina horiek ez dira Garibai etorbidean egongo, Biterin baizik. Hegaztiei dagokienez aukera handia egongo da, baina ganaduekin ez bezala, kanpotik etorriko zaizkigu gehienak. J.B.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Zorionak denori
ta urte berri on
Gaboak dira eta
denok pozik egon.

Zenbat opari eta
ai! zenbat zorion
eta bihotz-bihotzez
bai eguberri on.

4. maila



JANARI PRESTATUAK
Jakien elaborazio eta salmenta

**ENKARGA ITZAZU GABONETAKO
BAZKARI ZEIN AFARIAK,
ETA DISFRUTATU EGUN HORIEK**

ABENDUAK 25 ETA URTARRILAK 1EAN ITXITA

ONDO PASA SANTAMASAK!!!

Mitarte, 10 · Aretxabaleta · Tel: 943 77 0612 · Faxa: 943 77 1582

gertujanariak@euskalnet.net



Elgeta-Piel

*Udazkena eta negua
iritsi dira
Elgeta Pielera*

Domingo Iturbe 8
ELGETA
943 76 81 12

**Irailaren 28tik aurrera
zabalik**

Martitzenetik zapatura:
17:00-20:00.
Domekak:
11:00-13:30.
Astelehenetan itxita.



**HOTEL
MONDRAGON**



Zorionak eta Urte berri on!

Biteri etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 • Faxe: 943 71 23 43
Posta-e : hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com

Harri-zulatzailleak, aizkolariak eta harri-jasotzaileak Zaldibarren

Zaldibarko pilotalekuan bilduko da aurten ere Santamasetako herri kiroletako eskaintza. Eguerdi aldean hasiko dira probak, eta, nobedade moduan, bizkaitik etorritako harri-zulatzailleak erakustaldia egingo dute. Horiekin batera ez dira falta izango harri-jasotzaileak eta aizkolarien ohiko probak.

Herri kiroletan ohiko probak izango ditugu aurten ere Santamasetan: aizkolariak, harri-jasotzaileak eta pilota jaialdia Uar-kape kiroldegian. Zaldibarren izango dira aurten ere herri kiroletak, eta, ohiko probez gain, harri-zulatzailleak etorriko dira lehen aldiz Santamasetara. Orain arte herri kirol hori ez da oso ezaguna izan gure artean, eta gertuagotik ezagutzeko aukera izango da Santamasetako hau. Bi talde izango dira, bizkaitarrak biak hala biak, eta euren arteko lehia ikusteko aukera izango dugu Zaldibarren. Gainontzeko herri kiroletan ohiko hitzorduak egongo dira harri-jasotzaile eta aizkolarietara. Zaldibarko frontoian egingo dira herri kiroletako proba guztiak.

AIZKOLARIAK ETA HARRI-JASOTZAILEAK
Aizkolarien probetan nagusi zein gazteak lehiatuko dira, bi maila horietan banatuta. Lazabal eta Azurmendi bikotea Larretxea eta Mugarza bikotearekin lehia izango da enbor gainean. Kana erdiko bi ebakitze eta beste ebakitze bat 190 metro bueltako enborrari egin beharko diote bikoteek.

Horiekin batera, desafioa ere egongo da Barberena eta gazte



ARRASATE PRESS

Aurten ere Perurenarrak izango ditugu Zaldibarren.

mailako bikote baten artean. Ugaitz, 17 urtekoa, eta Aratz, 16koa, ibiliko dira Barberenaren aurka, eta talde bakoitzak zortzi ebakitze egin beharko ditu, kana erdikoak. Bi gazte horiek aski ezagunak ditugu bertan, ez da eta Santamasetara datozen lehen aldia, eta iaz ere erakustaldi bikaina egin zuten.

Harri-jasotzaileetan ere desafioa egingo dute parte-hartzaileen artean. Hala, bakoitzak bi minutuko saioa egin beharko du, 138 kiloko kubikoarekin eta 125eko bolarekin. Hiru gizon izango dira elkarren arteko desafioan: Izeta eta Goenatzorekin batera Perurena aita-semeak izango ditugu, Iñaki eta Iñazio.

Bizkaiko harri-zulatzaillearen erakustaldia izango da aurtengo nobedadea

Eguerdian izango dira harri-jasotzaile eta aizkolarien probak Zaldibarren

PILOTAUARKAPEN




ARRASATE PRESS

Pilota partidua Uarkapen, eguaztenean

Aurten ere, iaz egin zuten moduan, eguaztenean, Santamas egunean, egingo dute pilota jaialdia. Pilotari beterano aski eza-gunek esku hartuko dute Uarkapen.

Arratsaldeko seietan hasita, partidu bakarra egongo da ikusgai Santamasetan, binakakoa. Alustiza eta Errandoneak Ariznabarreta eta Armendarizen aurka jokatu beharko dute pilota jaialdian. Asegarce enpresako lau pilotari beterano horien da Udalak momentuz jakinarazi duen partidu bakarra.

Izan ere, momentuz partidu bakar hori izango da Santamasetan, baina baliteke gehiago egotea. Lerro hauek idazteko unean, antolatzaileek partidu hori bakarrik lotuta dagoela konfirmatu digute-eta. Horrenbestez, zintzilik geratzen da oraindik Santamasetan beste pilota partidurik egongo den edo ez. Hori konfirmatu bezain laster, Udalak aditzera emango du zaletuek jakin dezaten./J.B.



FAGOR
FAGOR INDUSTRIAL

ETXE - LAN, S. COOP.

Banatzaile ofiziala

• Ostalaritza • Garbitegia • Hotz industriala



Otalora 14, behea. ARRASATE
Tel.: 943 79 12 30
Faxa: 943 71 25 50
Posta-e: satanoar@fagorsat.com

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko abenduaren 17a / 133. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorlora Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Umeendako eta gazteendako ekitaldiak antolatu dituzte Gabonetarako

UBANE MADERA

Guztia gertu dute Aramaion aurtengo Gabonetarako. 24an hasi eta abenduaren 30era arteko egitaraua prestatu dute. Olentzero, lantegiak eta beste zenbait ikuskizun antolatu dituzte umeendako. Eta, besteak beste, lantegiak eta topaketak, gazteendako.

Jakinarazi digutenez, Olentzerok hartu du dagoeneko Aramaiorako bidea eta abenduaren 24an, ilunkeran jaitsiko da menditik eskolara. Ongi etorria egiteko zain dauden neska-mutikoekin bat egin eta handik plazara eramango ditu Olentzerok. Izan ere, plazan, ekarritako opariak eta gaztainak banatuko dizkie.

UMEENDAKO EKITALDIAK

Horrez gainera, Gabonetako oporrak direla-eta, bestelako ekitaldiak antolatu dituzte neska-mutikoendako. Hala, hilaren 27an, 11:00etan hasita, umeendako lantegiak izango dira kultura etxean; eta 28an, 12:00etan, Elvis sabel hiztunaren ikuskizuna izango da, hori ere kultura etxean. Era berean, hilaren 29an, Legutianon Eus-



Olentzerok abenduaren 24ko ilunkeran hartuko ditu Aramaioko umeak; sorpresatxoren bat ere badu haiendako.

kararen Jaia ospatuko dute, Zuiako Koadrilaren eskutik. 10:00etan hasiko da jaia. Hala, Aramaiotik hara joateko autobusa ipini dute, 09:40an aterako da eta 14:30ean

bueltatuko da. Euskararen Jaian, besteak beste, magia ikuskizunak, *Gari, Montxo eta Joselontxo* pailazoen saioa, puzgarriak eta lantegiak izango dira. Euskara-

ren Jairako autobuserako, abenduaren 23a baino lehen eman beharra dago izena, ludotekan. Bukatzeko, abenduaren 30ean, 11:00etan hasita, 5 urtetik gora-

Gazteendako topaketak antolatu dituzte aurreneko aldiz; Aramaion izango dira

ko neska-mutikoendako birziklapen lantegia egingo dute, kultura etxean.

GAZTEENDAKO EKITALDIAK

Bestalde, gazteendako ere antolatu dituzte denbora-pasak Gabonetan. Horien artean, abenduaren 27an eta 28an, malabarismo lantegia egingo dute kultura etxean, 11:00etan hasita. Eta abenduaren 30ean, koadrilako gazte topaketa egingo dute. Halako zerbait egiten duten aurreneko aldia da eta Aramaioko kiroldegia aukeratu du Zuiako Koadrilak lehenengo aldi horretarako. Ekimena 12 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago. 17:00etan hasiko da. Besteak beste, *bertso-tribiala* egingo dute Aramaioko bertso eskolak lagunduta; eta *henna*, perkusio eta oreka lantegiak ere egingo dituzte.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibabe • Langilea

Amaieran

Sasoi honetan beti gertatzen den legez, hasi dira zenbaitzuk urteko balantzea egiten. Zer pasatu den eta zer ez den pasatu. Kuestioa da hedabideek erabakitzen dutela zer pasatu den eta zer ez. Gertatu diren albisteetatik haiek erabakitzen dute zein kontatu, asko eta asko bidean geratzen direlarik, argia ikusi gabe, gure hausnarketetatik at, gure arduretatik kanpo, umezurtz. Auskalo zenbat eta zenbaterainokoak izan diren. Zein komunikabide ausartuko da hura babesten duen elkarte, multinazional edo politikariren aurka salaketa egiten? Hedabideen atzetik daude-

nak oso ondo arduratzen dira gizarte osoa ondo anestesiatuta edukitzen. Badakite kontsumismoa oso lo eragile efektiboa dela. Horregatik, Gabon garaia sasoi ederra da era guztietako kontsumoetan jausteko, zelako jatorduak egin, hari eta garestiagoo bada orduan eta hobeto, gizartearen izango duzun prestigioak, euroak burtsan moduan, gora egingo baitu. Asuntoa da kontsumitzeko ez ezik, hori



“Kontsumismoa oso lo eragile efektiboa da”

urte osoan eragiten baitigute, urtean zehar gertatutakoaren arduradun izendatzen gaituzte, gizarte osoa izan ohi gara gertakizun txarren erantzule, agintariak onartutako makina bat erabakiren parte izan ez arren. Guztiena ez esatearren. Inoiz demokrazia erabiltzekotan kasu honetan da, demokratikoki biztanlez biztanle banatzen dute erantzukizuna ia guztiok daukagun etengabe gezur hutsak jaurtitzen

dabilen kutxa horretatik. Haiek daukaten armarik zuriena da, euskaraz “zuri” hitzak duen konnotazio guztiakin gainera.

Zuriena, bai.

Hedabideak modu sutilean bada ere, gutariko bakoitzaren bidea zein eta nolakoa den esaten digute. Eta amesgaizto honetatik irten beharrean gaude, maiz bide ertzean uzten gaituzten frustazio askoren erantzule baitira. Buru adina aburu dauden legez, buru beste bide eta bizitza daude, eta ez ahaztu, inori kalte egiten ez dion bitartean, jarraitu norberaren bidea. Izan ezazue bada 2005ean Bide Barri Ona!

LABUR

Mediku zerbitzua eta udaletxea Gabonetan

Aramaioko Udalak jakinarazi digu abenduaren 24an eta 31n ez dela mediku eta erizain zerbitzurik izango Aramaioko anbulatorioan. Horrelakoetan ohi denez, larrialdiren bat gertatuz gero, Arrasateko anbulatorioa jo beharko da. 08:00etatik 17:00etara: 943 03 53 11. Eta 17:00etatik aurrera, Eskualdeko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetara jo beharko da: 943 03 53 00.

Era berean, jakinarazi digute udaletxea bera itxita izango dela abenduaren 24an eta 31n.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Batika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erretzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoia duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA, GABONETAN

Gabonetako oporrak datozela-eta, abendu bukaerara arteko film emanaldiak iragarriko ditugu oraingo honetan. Hasteko, gaur, barikua, Frank Darabont zuzendariaren *La Milla Verde* filma emateko asmoa dute, 22:30ean hasita. Besteak beste, Tom Hanks, David Morse eta Bonnie Hunt aktoreek parte hartuko dute drama horretan. Herio-zigorrekin lotutako filma da. Hain zuzen ere, hiltzera zigortutako preso zaintzaile baten eta zigortutako preso baten arteko harremana du oinarri filma horrek. Bestalde, hurrengo saioa abenduaren 26an izango da. Kontuz ibili, 19:30ean hasiko da-eta. Fantasiako Txinako filma bat aukeratu dute ordurako: Zhang Yimou zuzendariaren *Ying xiong* filma. Labur-labur esanda honakoa da filmaren argudioa: Txina zazpi erreinutan banatuta dago eta erreinuetako errege batek botere osoa lortu gura du. Besteak beste, Jet Li, Zhang Ziyi eta Tony Leung Chiu Wai aktoreek parte hartuko dute.

Jon Agirre presoaren herriratzea eta askatasuna lortzeko laguntza eskaera

U.M.

Jon Agirre aramaioren senideek laguntza eskatu dute preso Euskal Herrira ekar dezaten eta aske utz dezaten lortzeko. Aramaiorri ebakuntza arriskutsu bat egin behar diotelako egin dute eskaera.

Familiartekoez kontatutakoaren arabera, orain dela lau urte gerriko minekin hasi zen preso aramaiarra. Medikuak artrosia diagnostikatu zion. Baina, kartzelako arduradunek ez zioten jaramonik egin. Lau urteren ostean, aurtengo udan min handiekin ibili da. Senideek esan digute bisitetara irten ere ez zela egiten eta egun osoan etzanda egon behar izaten zuela. Oinetan sentibilitatea galdu ere egin zuen.

Horren aurrean, familia larritu eta kartzelako arduradunak presionatu zituzten, Jon Agirre medikuarengana atera zezaten. Eskanerra egin zioten, orain dela hilabete. Eta traumatologoez frogaren emaitzak aztertu ostean, diagnostikatu dute preso aramaiorriak desgaste handia duela, batez ere bizkar-hezurraren behe-



Jon Agirreri egindako omenaldi bateko irudia, Aramaioko kiroldegian.

ko aldean. Are gehiago, ebakuntza egin behar diote, ebakuntza arriskutsua. Eta ebakuntzaren ostean, errehabilitazio latza du.

EUSKAL HERRIAN EGITEKO ESKAERA

Gauzak horrela, Jon Agirrek berak eskatu du ebakuntza Euskal Herrian egitea; batez ere ebakuntza aurrekoa eta ostekoa gogorak izango direlako. Hala, bada, presoaren familiak Jon Agirre Euskal Herriratzea lortzeko laguntza

eskatu du; baita presoaren askatasuna lortzeko ere, ebakuntzaren ostean, sendatu ahal izateko.

24 URTE KARTZELAN

Jon Agirre 38 urterekin atxilotu zuten eta gaur egun 62 urte ditu; horrenbestez, 24 urte bete ditu preso. 1996an bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Gaur egun Malagako Alhaurin de la Torre kartzelan dago, etxetik 1.000 kilometro baino gehiagora.

BOTEPRONTOAN/ Oskar Arana · Itzultzailea

“Aramaioko udaletxera joan izan naizenean euskaraz hartu naute, eta hori eskertzekoa da”

Aramaion jaio eta Arrasaten hazitako debagoiendarra da Oskar Arana. John Maxwell Coetzeren *Lotsaizuna* liburua itzuli berri du, Arrasateko Jokin Zaitegi sariketan. Horren eta beste-lakoen gainean galdetu diogu:

Zela aurkeztuko zaitugu, itzultzaile moduan, abokatu...

Itzultzaile moduan. Nire lana hori da. Administrazioan nabil lanean, itzultzailea naiz eta aurtun itzuli dut lehendabiziko aldiz literatura.


Zein alorretan jarduten duzu? IVAPen nabil lanean, Eusko Jaurlaritzan. Itzultzen ditugu administrazioak sortzen duen edozein agiri, txosten...

Askotan ulertzeko horren zailak izaten diren agiri horiek itzultzen dituzu?

Administrazioetik kanpokoendako zailak dira, bai. Baina geroago eta itzulpen errazagoak egiten ditugu, euskaraz irakurtzeko modukoak.

Baina berez abokatua zarela kontatu didate niri...

Bai, Zuzenbide ikasketak ditut. **Eta zela bukatu duzu itzultzen?** Gustuko lanbide baten bila han eta hemen lanean ibili ostean pentsatu nuen gustuko izango nuela eta oposizio batzuetara aurkeztu nintzen. Orain bitarteko



“Euskarazko harremana izateko aukera ziurtatuta izan beharko litzatekeela uste dut”

funtzionarioa naiz. Ez dut plaza-rik baina badut noizbait lortzeko asmoa edo gogoia.

Administrazioko itzultzaile moduan, zela ikusten duzu euskararen osasuna administrazioan?

Zaila da diagnostikoa egitea. Baina administrazio barrura begira jarriz gero, uste dut orain arte erabilitako politika egin dutela euskararen ezagutza ziurtatze aldera; eta askotan, makal. Lanpostuek hizkuntza eskakizunak dituzte ipinita eta lanean hasteko eskakizun horiek bete egin behar dira. Eta horrela badirudi jakintza ziurtatu egin daitekeela, baina erabilera ez da ziurtatzen. Eta hor, ez dakit zerk huts egiten duen. Uste dut azkenean politika guztiek jendearen askatasunarekin topo egiten dutela eta jendeak erdara aukeratzen badu

“Itzultzea gustatzen zait, baita literatura ere, eta Jokin Zaitegi sariketan izan dut aukera”

LABUR

Gabonetan umeendako zinema saioekin hasiko dira

Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digunez, azken hilabeteotako etenaldiaren ostean, herriro ere hasiko dira asteburuetan umeendako zinema saioak egiten, kultura etxean.

Hain zuzen ere, Gabonetako oporrak aprobetxatuko dituzte lehengo jarduna berreskuratzeko. Hala, bada oraindik zein filma emango duten aukeratu ez badute ere, dagoeneko zehaztu dituzte film emanaldien egunak: datorren domekan, abenduaren 19an egingo dute aurreneko emanaldia, 17:30ean hasita. Gero, Gabon Egunean, 25ean izango da hurrengo saioa eta hurrengo egunean beste filma bat emango dute. Abenduko saioekin bukatzeko, urtarrilaren 1ean eta 2an emango dituzte azkeneko filmak. Hortik aurrera, asmoa da lehengo jardunera bueltatzea eta astebururo izatea umeendako zinema saioak.

komunikatzeko eta lan egiteko, eta behartu ezin denez egin, nik neuk ez dakit zela piztu haien motibazioa. Uste dut hori zaila dela. Motibazioak pertsonaren barrutik sortzen dira eta oso pertsonalak izaten dira. Edoze-lan ere, euskarazko harremana izateko aukera ziurtatuta egon beharko litzatekeela uste dut. Dena dela ez dakit hori zelan egin behar den.

Alde horretatik, Aramaioko udaletxean euskara kontuekin fin samar portatzen dira...

Bai. Aramaioko herri euskalduna da eta langileak urteak daramatzate ahaleginak egiten geroago eta euskara maila hobea eskuratzeko; eta hori igartzen da. Nik dakidala, behintzat, sekulako ahalegina egin dute. Ni ez naiz askotan joaten, baina joan izan naizenean euskaraz hartu naute eta hori eskertzekoa da.

Orain liburu bat itzuli duzu; probatzearen egin duzu?

Probatzearen, nire burua lan horretan ikustearren eta aspaldiko amets bat gauzatu nahi izatearren. Itzultzea beti gustatu izan zait, baita literatura ere eta Jokin Zaitegi sariketan sortu zait aukera. **Laster irakurriko dugu zure libururen bat?** Ezetzik ez noa esatera. (Barre)

ERRETRATU ZAHARRA

Santamasak
Verduring
Dancing-en

Antzinako Santamasen eta gaurkoen artean bada desberdintasunik. Horren irudi oraingo asterako ekarri diguten argazki zaharra. 1959koa da. Gure berriemaileak kontatu digunez, sasoi hartan berdura azoka bakarrik egiten zuten Santamasetan. Inguruko baserritarrena, Arrasatekoena. Eta Verduring Dancing-en ipintzen zuten, argazkian ikusten den moduan. Hori bai, adierazi digu azoka txikiagoa izan arren, jai garrantzitsua zela Santamas eguna. Kanpotik jende mordo etortzen zela. Hala, goizean azoka izaten zen, eta arratsaldean, dantzaldia. Dantaldiaren gainean, esan digu hasierako urteetan Biterin izaten zela, gaur egun aparkalekua egiten dabilzan lekuan; eta batez ere trikitia jotzen zutela. Eta urteak geroago, Verduring Dancing-en egiten hasi zirela. Felipe Vitoriak, Eusebio Gomezek, Villarrek... jotzen zuten Verduring-o orkestra hartan. Oro har, oso egun polita izaten zela kontatu digute. Argazkiari begiratuta, zenbait lagun identifikatzea lortu



dugu, honako hauek, ezkerretik hasita: Jose Inazio Markaide (mutikoa), Lola *Estazioko buruzagia* (aurrera begira dagoen aurreneko emakumea, tren geltokiko buruzagiaren emaztea zen, pertsona ezaguna Arrasaten); Maria Jesus Artola

(buruko zapiarekin); Espe Lizarralde (ondokoa); beltzez jantzitako amonaxoaren ondoko emakumea Blanka Uranga da, eta amona haren ama. Eta Blanka Urangaren ondokoa (poste ondoan dagoena) Aperribai da. Ikusten duzuen moduan, berdura

saltoki bati begira daude. Hain zuzen ere, Olio baserriko Pilar Gallastegi zen argazkiko saltokiaren jabea.

Argazkia eta informazioa: Espe Lizarralde, Urtea: 1959.

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Kamioiak
beharrean,
bizilagunak

Argazkian azaltzen den errepide horretatik makina bat kamioi pasatzen zen lehen, Kobaterako bidean. Azkeneko urteotan, baina, automobilek lekua hartu diote kamioiei, argazkiko inguru horretan etxebizitza ederrak egin dituzte-eta. Kamioiendako beste errepide bat dago, Atxabalpe aurretik. Seguru eskertzen dutela auzoan kamioirik ez ibiltzea.



≈ 1993

Arrasate-Aramaio errepidetik Kobatera zuzenean joateko errepideko lanak azkartu egin zituen Udalak.



2004

Kamioiendako errepide hori Udalaren eta Kobate ustiatzen zuten enpresen artean egindako hitzarmenari esker egin zuten.

Meson Manolo

Santamas
eguneko
menua:

Urdaiazpiko iberikoa
Patea
Arrain budina

Ondo pasatu
Santamasetan!

Entrekota patata erre eta piper gorriekin edo
Legatza saltsa berdean
Postrea: etxeko tarta

Ura, sagardoa edo ardoa. Kafea

Bañez Doktorea 3. San Andres auzoan
Tel.: 943 79 22 40

lantzzeria
B
Bea

Otalora kalea 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 05

*Paraje eder
baten kokatua*

*Atsedenerako
behar den
guztiarekin*

*Enpresa
bilerak
egiteko leku
egokia*

*Dasta ezazu
gure menurik
goxoenak*

Arteaga

Landetxea

*Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82*

Z
o
r
i
o
n
a
k
e
t
a
U
r
t
e
b
e
r
r
i
o
n



ALDEDI

GRUPO **RKUZ**

1950
Zure etxea da
2004



RKUZ ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL MUEBLES

ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

RKUZ ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



expert 

FAGOR 